

ZTE

SKATE -aren erabiltzailearen eskuliburua



Euskaltelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua



LEGE-INFORMAZIOA

Copyright © 2011 ZTE.

Eskubide guztiak erreserbatuta.

Eskuliburu honen zati bat ere ezin da aipatu, erreproduzitu, itzuli edo erabili inolako modutan edo inolako bitartekoren bidez (elektronikoa edo mekanikoa, fotokopiak eta mikrofilmak barne) ZTE Corporation-en aurretiazko idatzizko baimenik gabe.

Eskuliburu hau ZTE Corporation-en argitalpen bat da. Guretzat gordetzen dugu inprimatzean gertatutako akatsak zuzentzeko eskubidea, baita produktuaren zehaztapenak aurretik abisatu gabe eguneratzeko eskubidea ere. Ahalegin handia egin dugu eskuliburu hau egiten, edukia zehatz-zehatza dela bermatzeko. Dena den, eskuliburu honetako adierazpen, informazio edo gomendioak ezin dira inolako bermetzat hartu —ez berariazkoa, ez inplizitua—.

Bluetooth® marka komertzialaren eta logotipoaren jabea Bluetooth SIG, Inc. da, eta ZTE Corporation-ek lizentziarekin erabiltzen ditu. Gainerako marka edo izen komertzialak dagozkien jabeenak dira.

Bertsio-zenbakia: R1.0

Edizio-data: 2011/11

Eskuliburu-zk.: 079584502701

Edukiak

Ohartarazpenak eta segurtasun-neurriak.....	11
Segurtasun orokorra	11
Irrati-maiztasuneko (IM) energiarekiko esposizioa.....	13
Irrati-maiztasunari buruzko deklarazio orokorra	13
Absortzio espezifikoaren tasa (SAR).....	13
Gorputzean erabiltzea.....	14
Irrati-maiztasuneko (IM) eremuekin kontaktua mugatzea...	15
Araudiari buruzko informazioa	15
Distrazioak	17
Gidatzea	17
Makinak erabiltzea	17
Produktua erabiltzea	18
Produktua maneiatzeari eta erabiltzeari buruzko deklarazio orokorra.....	18
Haur txikiak	19
Desmagnetizazioa	19
Deskarga elektrostatikoa (ESD).....	19
Antena	20
Erabilera arruntaren posizioa.....	20
Airbag-ak	21
Epilepsia-krisiak / zorabioak	21

Mugimendu bera egiteagatik sortutako lesioak	21
Larrialdi-deiak	22
Zarata handia.....	22
Telefonoa berotzea	22
Segurtasun elektrikoa	23
Osagarriak	23
Auto batera konektatzea	23
Produktu akastunak eta hondatuak.....	23
Interferentziak	24
Interfazeari buruzko deklarazio orokorra	24
Taupada-markagailua	24
Audiofonoak.....	24
Gailu medikoak.....	25
Ospitaleak	25
Hegazkinak	25
Interferentziak autoetan	25
Leherketa-arrisku handiko inguruneak	26
Zerbitzuguneak eta atmosfera lehergarriak	26
Detonagailuak eta leherketa-eremuak.....	26
Sarrera.....	27
Deskribapen orokorra	27
Teklen deskribapena	28
Hasierako prozedurak	29
SIM/microSD txartela eta bateria jartzea Bateria eta SIM/ microSD txartela eraztea	32
Bateriaren karga	32

Telefonoa piztea/jitzaltzea	33
Telefonoaren hasierako konfigurazio.....	33
Deskonexio-modura aldatzea.....	34
Telefonoa aktibatzea.....	34
Ezaugarriak.....	35
Ukipen-kontrola	35
Pantaila nagusia.....	36
Egoera- eta jakinarazpen-ikonoak.....	39
Jakinarazpenen panelaren erabilera	41
Aplikazioen eta doikuntzen aurrebista	42
Telefono-deiak.....	48
Deiak nola egin	48
Deiak nola egin teklatutik.....	48
Deiak nola egin kontaktuetatik.....	48
Deiak nola egin deien historiatik.....	49
Deiak nola egin testu-mezu batetik	49
Markatze azkarra nola erabili	49
Deiak nola jaso	50
Deiari nola erantzun	50
Nola ez onartu deia	50
Nola isilarazi deia.....	50
Nola utzi dei bat zain	51
Bozgorailua nola aktibatu eta desaktibatu	51
Deia nola bukatu	51

Deiaren doikuntzak konfiguratzeko	51
Kontaktuak	54
Kontaktuak inportatzea eta esportatu	54
SIM txarteleko kontaktuak nola inportatu edo kontaktuak txartelera nola esportatu	54
MicroSD txarteleko kontaktuak nola inportatu edo kontaktuak txartelera nola esportatu	55
Nola partekatu kontaktuei buruzko informazioa.....	55
Kontaktuak nola sortu	56
Kontaktu bat nola gehitu Favoritos atalera.....	56
Kontaktuak nola bilatu	56
Talde berri bat nola sortu	57
Testua idaztea	58
Android-en teklatura	58
Testua idazteko XT9 modua.....	60
Testua ukipenez sartzeko konfigurazioa nola hautatu.....	63
Mezularitza	64
Mezuen ontzia.....	64
Mezuak nola bidali.....	64
Mezuen konfigurazioa nola aldatu	65
Posta elektronikoa	68
Posta elektronikoko kontu bat nola sortu.....	68
Mezu elektronikoak nola jaso.....	69

Mezu elektronikoak nola sortu eta bidali	70
Mezu elektroniko bati nola erantzun edo mezua nola birbidali..	71
Kontu bat nola ezabatu	71
Posta elektronikoaren ezarpenak.....	72
Interneteko konexioa.....	73
GPRS/3G/EDGE konexio berria gehitzea.....	73
WiFi-konexioa aktibatzea	74
WiFi sare batera konektatzea	76
WiFi sarearen egoera egiaztatzea	76
WiFi sare batekin nola konektatu.....	74
WiFi sarearen egoera nola egiaztatu	75
Telefonoa modem gisa nola erabili	75
Telefonoa modem gisa nola aktibatu	75
Modem-funtzioa nola desaktibatu	77
Telefonoa WiFi sarbide gisa nola erabili	77
WiFi sarbide-puntua nola aktibatu.....	78
WiFi sarbide-puntua nola desaktibatu	78
Interneteko nabigazioa.....	79
Nabigazio-aukerak	79
Markagailuak nola erabili.....	80
Markagailu bat nola editatu	80
Markagailu bat nola ezabatu.....	81
Nabigatzailearen doikuntzak nola aldatu	81
Bluetooth®-a	82
Nola atera multimedia-funtzioei ahalik eta etekin handiena	84

Kamerarekin argazkiak nola atera.....	84
Kameraren doikuntzak nola konfiguratu.....	84
Bideokamerarekin bideoak nola grabatu.....	85
Bideoaren doikuntzak nola konfiguratu	85
FM irratia nola entzun.....	86
Musika nola erreproduzitu	87
Erreprodukzio-zerrendak nola sortu	88
Erreprodukzio-zerrendak nola kudeatu	89
Abesti bat telefonoaren tonu gisa nola ezarri	90
Bideoak nola erreproduzitu.....	90
Galeria nola ireki	90
Oroitzapen gogoangarriak nola sortu.....	91
Google™ aplikazioak nola erabili.....	93
Gmail	93
Google™ egutegia nola erabili.....	94
Google Talk nola erabili.....	94
Google Talk nola ireki	95
Beste lagun bat nola gehitu	95
Lineako egoera nola aldatu	95
Txat bat nola abiarazi.....	95
Lekuak	96
Latitude.....	97
Telefonoaren doikuntzak nola antolatu	98
Ordua eta data nola doitu.....	98

Pantailaren doikuntzak nola aldatu	98
Soinu-doikuntzak.....	99
Hizkuntzaren doikuntzak	100
Sare mugikorren zerbitzuak.....	100
Atzerrian datu-zerbitzuak nola erabili.....	101
Datu-zerbitzuak nola desaktibatu.....	101
Beti konektatuak dauden datu-zerbitzuak nola aktibatu	101
Sare-moduak nola aldatu.....	102
Sarea nola aldatu.....	102
Sarbidetuen izenak nola konfiguratu	102
Segurtasunaren konfigurazioa	103
Pantaila desblokeatzeko ereduarekin babestea telefonoa ..	103
Telefonoa PIN batekin edo pasahitz batekin nola babestu.	105
Pantaila desblokeatzeko aukera nola desaktibatu	105
SIM txartela PIN batekin nola babestu.....	106
Egiaztagirien biltegiatzea nola konfiguratu.	107
Gailuaren memoria nola administratu	108
Pribatutasuna: fabrika-konfigurazioa nola berrezarri	108
Aplikazioak nola administratu	109
Aplikazioak nola instalatu.....	109
Beste doikuntza batzuk nola administratu	110
Bilaketa-doikuntzak.....	110

Ikarreraginak ahotsarekin.....	111
Irisgarritasuna.....	111
Beste zenbait aplikazio	112
Alarmak.....	112
Ohar-bloka.....	112
Kalkulagailua.....	112
SIM zerbitzuak.....	113
Zeregin-kudeatzailea.....	113
Kronometroa.....	113
Zehaztapenak	114
RoHS araudia betetzearen aitorpena	115
Gailu zaharra botatzea	116
ADOSTASUN-DEKLARAZIOA	117

Ohartarazpenak eta segurtasun-neurriak

Segurtasun orokorra

	Gidatzen ari zarela, ez egin edo ez erantzun deirik terminalarekin. Ez idatzi mezurik gidatzen ari zarela.		Ez erabili telefonoa zerbitzuguneetan.
	Deiak egitean, telefonoa gorputzetik edo belarritik 15 mm-ra izan, gutxienez.		Gailu honek argi distiratsua edo dirdira egiten duena igor dezake.
	Pieza txikiak irentsiz gero, itotzeko arriskua dago.		Ez bota telefonoa sutara.
	Telefonoak hots handia egin dezake.		Ez jarri objektu magnetikoekin kontaktuan.

	Taupada-markagailuetatik eta bestelako gailu mediko elektronikoetatik urrun izan.		Saihestu muturreko tenperaturak.
	Itzali ezazu, ospitaleetan eta osasun-zentroetan hala egiteko eskatzen denean.		Ez jarri terminala likidoekin kontaktuan. Ez busti telefonoa.
	Itzali ezazu, hegazkintan eta aireportuetan hala egiteko eskatzen denean.		Ez desmuntatu telefonoa.
	Itzali ezazu material edo likido leherkorren ondoan zaudenean.		Osagarri onartuak bakarrik erabili.
	Saia zaitetz telefonoaren mende ez egoten larrialdiko komunikazioetarako.		

Irrati-maiztasuneko (IM) energiarekiko esposizioa

Irrati-maiztasunari buruzko deklarazio orokorra

Telefonoak transmisore eta hartzaile bana ditu. Piztuta dagoenean, irradi-maiztasuneko energia jasotzen eta transmititzen du. Telefonoz hitz egitean, deia kudeatzen duen sistemak kontrolatzen du telefonoak zer energia-mailan transmititzen duen.

Absortzio espezifikokoaren tasa (SAR)

Gailu mugikor hau irradi-uhinen transmisorea eta hartzailea da. Nazioarteko arauak gomendatutako irradi-uhinekiko esposizio-mugak ez gainditzeko moduan diseinatu da. Arau horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak garatu zituen, eta pertsona ororen —adina eta osasun-egoera gorabehera— segurtasuna ziurtatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzte.

Absortzio espezifikokoaren tasa (SAR, Specific Absorption Rate) deritzaon neurri-unitatea erabiltzen dute arauak. Gailu mugikorretarako, 2 watt/kilogramo muga dago.

Gailu hau belarrarian probatzean erregistratu den SAR baliorik handiena $1,1 \text{ W/kg}$ * izan da. Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, beste posizio batzuetan ere erabil daitezke, hala nola gorputzaren gainean, erabiltzailearen gidaliburu honetan deskribatzen den bezala**.

SAR balioa gailuaren transmisio-energia handiena erabilita neurtzen da; hori dela eta, gailu honen benetako SAR balioa lehenago adierazitako mailaren azpitik egoten da, normalean, funtzionatzen ari denean. Gailuaren energia-mailaren aldaketa automatikoen-gatik egiten da hori, sarea atzitzeko behar den gutxieneko maila bakarrik erabiltzen duela bermatzeko.

* EN 50360, EN 62209-1 eta EN 62209-2 arauen arabera egin dira probak.

** Kontsulta ezazu telefonoa gorputzean erabiltzeari buruzko atala.

Gorputzean erabiltzea

Irrati-maiztasunaren (IM) erradiazioari buruzko segurtasuneko informazio garrantzitsua:

Irrati-maiztasunen eraginari buruzko arauak betetzen direla bermatzeko, telefonoa gorputzetik gutxienez 15 mm bereizi behar da. Jarraibide horiek betetzen ez badira, baliteke irrati-maiztasuneko erradiazioek arauak ezarritako mugak gainditzea.

Irrati-maiztasuneko (IM) eremuekin kontaktua mugatzea

Irrati-maiztasuneko eremuekin kontaktua mugatu nahi duten erabiltzaileentzat, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) aholku hau ematen du:

Prebentzio-neurria: daukagun informazio zientifikoak ez du adierazten telefono mugikorrek erabiltzeko prebentzio-neurri berezirik hartu behar denik. Erabiltzaileek horren inguruko kezka bat badeute, aukera dute irrati-maiztasuneko eremuekin haiek edo haien seme-alabek duten kontaktua mugatzeko, deien iraupena gutxituz edo esku libreko gailuak erabiliz telefono mugikorrek burutik eta gorputzetik urrun izateko.

Gai horri buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus OMEren webguneko orri nagusia: <http://www.who.int/peh-emf> (WHO Fact sheet 193: 2000ko ekaina).

Araudiari buruzko informazioa

Onarpen eta ohar hauek eskualde jakinetarako dira baliagarriak, adierazten den bezala.

Kontsulta ezazu RoHS araudia eta CE markaren araudia betetzeren aitortpenari buruzko atala; eskuliburu honen amaieran dago.

WiFi konexioak erabiltzeari buruzko estatuko mugak

2400,0-2483,5 MHz

Herraldea	Murrizketak	Arrazoa/Iruzkina
Bulgaria		Baimen orokor bat behar da kanpoan eta zerbitzu publikoan erabiltzeko.
Frantzia	Kanpoko erabile-rak 10 mW EIRPko muga du 2454-2483,5 MHz-eko bandaren barruan.	Irrati-lokalizazio militarrean erabiltzeko. Azken urteotan, 2,4 GHz-eko banda araudi berrira berrantolatzen aritu dira (ez da lehengoa bezain zorrotza) egokitzeko. Aurreikuspenen arabera, 2012an amaituko dute berrantolatzen.
Italia		Instalazioetatik kanpo erabiltzeko, baimen orokor bat behar da.
Luxemburg	Bat ere ez	Baimen orokor bat behar da sarearen eta zerbitzuen hornidurarako (espektro-rako ez).

Norvegia	Ezarria	Azpiatal hori ez da aplikatzen Ny-Ålesund-eko erdigunetik 20 km-rako eremu geografikoan.
Errusiako Federazioa		Barruko aplikazioetarako bakarrik.

Oharra: ez erabili telefonoa Frantziako kanpoko eremuetan.

Distrazioak

Gidatzea

Istripu-arriskua gutxitzeko, arreta berezia jarri behar da gidatzean. Gidatzen ari zarela telefono mugikorra erabiltzeak (baita esku libreko kitarekin ere) distrazioak sortu eta istripuak eragin litzake. Gidatzen ari zarela haririk gabeko gailuak erabiltzea mugatzen duten tokiko legeak eta araudiak bete behar dituzu.

Makinak erabiltzea

Makinen erabileran jarri behar da arreta osoa, istripuen arriskua gutxitzeko.

Produktua erabiltzea

Produktua maneiatzeari eta erabiltzeari buruzko deklarazio orokorra

Erabiltzailea da telefonoa erabiltzeko moduaren eta horrekin eragindako ondorioen erantzule bakarra.

Beti itzali behar da telefonoa hori erabiltzea debekatuta dagoenean. Telefonoaren erabilerak segurtasun-neurri batzuk ditu, erabiltzaileak eta haren ingurua babesteko.

- Telefonoa eta osagaiak kontu handiz tratatu beti, eta garbi eta hautsik gabe izan.
- Ez eduki telefonoa edo osagarriakugarren edo piztutako tabako-produktuen ondoan.
- Ez busti telefonoa edo haren osagarriak, eta ez utzi toki oso hezeetan.
- Ez bota lurrera telefonoa edo haren osagarriak, eta ez saiatu tolesten.
- Ez erabili gai urratzaileak, garbiketarako disolbatzaileak edo aerosolak telefonoa edo haren osagarriak garbitzeko.
- Ez margotu telefonoa, ez eta osagarriak ere.
- Ez saiatu telefonoa edo haren osagarriak desmuntatzen; baimendutako langileek soilik egin dezakete hori.

- muturreko tenperaturan: - [5] gradu zentigrado gutxienez eta + [50] gradu gehienez.
- Kontsulta ezazu produktu elektronikoen hondakinei buruzko tokiko arautegia.
- Ez eraman telefonoa atzeko poltsikoan, esertzean hautsi baitezakezu.

Haur txikiak

Ez utzi telefonoa edo haren osagarriak hau txikien eskura, eta ez utzi haiekin jolasten.

Zauriak egin ditzakete edo beste batzuei eragin. Halaber, telefonoa kaltetu dezakete istripuz.

Telefonoak ertz zorrotzeko pieza txikiak dituzte; piezek zauriak eragin ditzakete edo askatu eta itotzea eragin dezakete.


Desmagnetizazioa

Desmagnetizaziorik gertatu ez dadin, ez utzi gailu elektronikorik edo objektu magnetikorik telefonotik gertu luzaroan.

Deskarga elektrostatikoa (ESD)

Ez ukitu SIM txarteleko metalezko konektoreak.


Antena




Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.

Erabilera arruntaren posizioa

Deiak egitean edo jasotzean, jarri telefonoa belarrian beheko aldean ahoantz begira dagoela.





Airbag-ak

Ez jarri telefonoa airbag baten gainean edo airbag-a hedatzeko eremuan. Gorde toki seguruan gidatzen hasi aurretik.

Epilepsia-krisiak / zorabioak

Gailu honek argi distiratsua edo dirdira egiten duena igor dezake.

Mugimendu bera egiteagatik sortutako lesioak

Telefono mugikorrarekin testua idaztean edo jolastean, halako lesioak izateko arriskua gutxitzeko:

- Ez sakatu gehiegi telefonoa.

- Leun sakatu botoiak.
- Erabil itzazu sakatu beharreko botoi-kopurua murrizteko diseinatu diren telefonoaren funtzio bereziak, esaterako, mezuen txantiloiak edo testu prediktiboa.
- Hartu atsedenaldiak, luzatzeak egiteko eta erlaxatzeko.

Larrialdi-deiak

Telefono honek, haririk gabeko edozein telefonok bezala, irratiseinaleen bidez funtzionatzen du; horregatik, ezin da bermatu konexioa egoera guztietan. Beraz, ezin duzu haririk gabeko telefonoaren mende bakarrik egon larrialdietako deiak egiteko.

Zarata handia

Telefono honek belarria mindu dezaketen zarata handiak sor ditzake. Jaitsi bolumena entzungailuak, Bluetooth entzungailu estereoa edo beste audio-gailu bat erabili aurretik.

Telefonoa berotzea

Telefonoa berotu daiteke kargatzen ari dela eta erabilera normalekin.

Segurtasun elektrikoa

Osagarriak

Baimendutako osagarriak bakarrik erabili.

Ez konektatu telefonoa bateragarriak ez diren produktuetara edo osagarrietara.

Ez ukitu objektu metalikoak (adibidez, txanponak eta giltzariak), eta ekidin bateriaren terminalek haiekin kontaktua izatea edo zirkuitulaburrak sortzea.

Auto batera konektatzea

Eskatu laguntza profesionala, telefonoaren interfazea ibilgailuaren sistema elektronikora konektatzen duzunean.

Produktu akastunak eta hondatuak

Ez egin telefonoa edo osagarriak desmuntatzeko saiarik.

Langile prestatuek bakarrik instalatu edo konpondu behar dute telefonoa edo osagarriak.

Telefonoa edo osagarriak uretara erori badira, zulatu badira edo erorketa larriak pairatu badituzte, ez itzazu erabili baimendutako zerbitzu-zentro batean berrikusi arte.

Interferentziak

Interfazeari buruzko deklarazio orokorra

Kontu handiz erabili telefonoa gailu mediko pertsonaletatik gertu (taupada-markagailuak eta audiofonoak, esaterako).

Taupada-markagailua

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek telefono mugikorraren eta taupada-markagailuaren artean gutxienez 15 cm-ko distantzia izateko gomendatzen dute, taupada-markagailuarekin interferentziak sortzea galarazteko. Horretarako, taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarrian erabili telefonoa, eta ez ezazu eraman bularraldeko poltsikoetan.

Audiofonoak

Audiofonoak edo kokleako bestelako inplanteak dituztenek interferentzia-zaratak sumatu ditzakete haririk gabeko gailuak erabiltzean edo halakoren bat gertu izatean.

Interferentzia-maila entzungailu-motaren eta interferentzia-iturriaren distantziaren arabera izango da. Baliteke bien arteko distantzia handituta interferentzia txikitzea. Halaber, audiofonoaren fabrikatzailearekin kontsulta ditzakezu beste aukerak.

Gailu medikoak

Kontsultatu zure medikuarekin eta gailuaren fabrikatzailearekin, telefonoaren funtzionamenduak gailuaren funtzionamendua eragozteko aukera badago.

Ospitaleak

Itzali haririk gabeko gailua hala eskatzen denean ospitaletan, kliniketan eta osasun-zentroetan. Eskaera hori ezarri da ekipo mediko sentikorrekinterferentziak izateko aukera saihesteko.

Hegazkinak

Itzali haririk gabeko gailua hala eskatzen dizutenean aireportuko edo airelineako langileek.

Galdetu airelineako langileei hegazkinean haririk gabeko gailuak erabiltzeko aukera badagoen. Gailuak hegaldi-modua badu, hegazkinera igo aurretik aktibatu behar da.

Interferentziak autoetan

Gogoan izan honako hau: ekipo elektronikoko batzuekin egon daitezkeen interferentziak direla medio, auto-fabrikatzaile batzuek ez dute onartzen telefono mugikorrek beren ibilgailuetan erabiltzea, instalazioak esku libreko ekipoa eta kanpoko antena ez badu behintzat.

Leherketa-arrisku handiko inguruneak

Zerbitzuguneak eta atmosfera lehergarriak

Lehergarriak izan daitezkeen atmosfera duten tokietan, kasu egin haririk gabeko gailuak (telefonoa edo bestelako irrati-ekipoak) itzaltzeko jarraibideei.


Atmosfera lehergarriak izan ditzaketen tokien artean, hauek daude: erregaiak hartzeko guneak, itsasontzien bizkarraren azpiko guneak, erregaiak edo produktu kimikoak biltegitratzeko edo garraiatzeko instalazioak eta airean substantzia kimikoak edo partikulak (hala nola aleak, hautsa edo metal-hautsa).


Detonagailuak eta leherketa-eremuak

Itzali mugikorra edo haririk gabeko gailua leherketa-eremuetan zaudenean edo gailu igorleak/hartzaileak eta gailu elektronikoak itzaltzea gomendatzen duten eremuetan, leherketekin gerta daitezkeen interferentziak saihesteko.

Sarrera

Deskribapen orokorra





Teklen deskribapena

Tekla	Funtzioa
Pizteko tekla	<ul style="list-style-type: none"> • Luze sakatu isilik modua edo hegaldi-modua aktibatzen edo desaktibatzen edo gailua itzaltzen. • Sakatu tekla hau deskonexio-modua aktibatzen. • Sakatu tekla hau telefonoa aktibatzen.


Tekla	Funtzioa
Hasteko tekla	<ul style="list-style-type: none"> • Sakatu tekla hau edozein aplikazio edo pantailatik pantaila nagusira itzultzeko. • Luze sakatu azkenak erabili dituzun aplikazioak ikusteko.
Menu-tekla	<ul style="list-style-type: none"> • Sakatu tekla hau uneko pantailako aukeretara sartzeko
Atzera egiteko tekla	<ul style="list-style-type: none"> • Sakatu tekla hau aurreko orrira joateko.
Bolumen-tekla	<ul style="list-style-type: none"> • Sakatu edo luze sakatu bolumena igotzeko edo jaisteko.

Hasierako prozedurak


SIM/microSD txartela eta bateria jartzea

Itzali telefonoa, bateria, SIM txartela edo memoria-txartela jarri edo aldatu aurretik.


1. Kendu atzeko estalkia.



2. Jarri SIM txartela ebakitako ertza irudian agertzen den norabidean duela, eta sartu txartelaren gordelekuan.




3. Eutsi microSD txartelari, eta sartu barrurantz.



OHARRA: SD Card Association-en marka komertzial erregistratua da microSD-ren logotipoa **MicroSD**.

4. Bateria sartzean, lerrotatu haren urre-koloreko kontaktuak bateriaren konpartimendukoekin. Sakatu leun bateria, bere lekuan sartuta gelditu arte.



5. Jarri estalkia bere tokian, eta sakatu leun klik bat entzun arte.


Bateria eta SIM/microSD txartela erauztea

1. Bateria eta SIM/microSD txartela erauztea
2. Ziurtatu telefono mugikorra itzalita dagoela.
3. Kendu atzeko estalkia.
4. Igo bateria, eta erauzi.
5. Lerratu SIM txartela kanporantz.
6. Lerratu microSD txartela kanporantz.

Bateriaren karga

Telefonoa erabiltzen duzun lehen aldian, bateria kargatu behar duzu.

1. Konektatu egokigailua korrante-hartune batera. Egiaztatu egokigailua ongi sartuta dagoela. Ez behartu konektorea kargagailuaren hargunearekin konektatzean.



2. Konektatu kargagailua paretako korrante alternoko entxufe batera.
3. Deskonektatu kargagailua, bateria erabat kargatuta dagoenean.

Telefonoa piztea eta itzaltzea

Egiaztatu SIM txartela telefono mugikorrean instalatuta dagoela eta bateria kargatuta dagoela.

- Luze sakatu **pizteko tekla**, telefonoa pizteko.
- Itzali nahi baduzu, luze sakatu **pizteko tekla**, telefonoaren aukeretara sartzeko. Hautatu **Apagar**, eta, ondoren, ukitu **Aceptar**.

Telefonoaren hasierako konfigurazioa

Telefonoa erosi edo fabrikako doikuntzak berrezarri ondoren lehen aldiz pizten duzunean (*ikus Telefonoaren doikuntzak nola antolatu - Pribatutasuna: fabrika-konfigurazioa nola berrezarri*), konfiguratu egin beharko duzu erabili ahal izateko.

1. Aukeratu datu mugikorrak aktibatu edo desaktibatu nahi dituzun, eta ukitu **Siguiente**.
2. Ukitu **Cambiar idioma**, hizkuntza aldatu eta erabili nahi duzuna aukeratzeko, behar izanez gero.

3. Ukitu pantailan bistaratzen den Android robota.
4. **Sortu** Google-ko kontu bat, edo sartu zure kontura.
Halaber, **Omitir** uki dezakezu kontua geroago konfiguratzeko.
5. Konfiguratu Google-ren kokapen-aukerak, eta ukitu **Siguiente**.
6. Konfiguratu eguna eta ordua, eta ukitu **Siguiente**.


Deskonexio-modura aldatzea

Modu honek telefonoa energia-kontsumo baxuan jartzen du, eta pantaila itzalita egongo da. Halaber, gailua desconexio-modura aldatuko da automatikoki telefonoa denbora-tarte jakin batean inaktibo dagoenean. Denbora-tartea hemen definitu daiteke:

Ajustes > Pantalla > Tiempo de espera de la pantalla.

Sakatu pizteko tekla desconexio-modua aktibatzeko.

Telefonoa aktibatzea

1. Sakatu pizteko tekla pantaila aktibatzeko.
2. Arrastatu  ikonoa eskuinerantz.

OHARRA: telefonoari desblokeatze-eredu bat, PIN bat edo pasahitz bat ezarri badiozu (ikus *Telefonoaren doikuntzak nola antolatu - Segurtasun-ezarpenak*), sartu egin beharko duzu pantaila desblokeatzeko.

Ezaugarriak

Ukipen-kontrola

Telefonoaren funtzioetara sartzeko ukipen-mugimenduak erabil ditzakezu. Ukipen-pantailako kontrolak dinamikoki aldatzen dira, egiten ari zaren lanen arabera.

1. Ukitu botoiak, ikonoak edo aplikazioak, elementuak hautatzeko edo aplikazioak irekitzeko.
2. Luze sakatu elementu bat, eskura dauden aukerak ikusteko.
3. Lerratu hatz bat pantailan, gorantz, beherantz, eskuinerantz edo ezkerrerantz mugitzeko.
4. Hautatu, arrastatu eta askatu elementuak pantailan leku batetik bestera eramateko.
5. Atximurka egin pantailan edo ukitu bi aldiz bi hatzekin web-orri bat edo irudi bat hurbiltzeko edo urruntzeko.

OHARRA: telefonoaren pantaila bertikalean edo horizontalean ikusteko, telefonoa bertikalean edo horizontalean jarri besterik ez duzu.

Pantaila nagusia

Pantaila nagusian agertzen dena hauta dezakezu. Ezarri zure pantaila-hondoa, eta gehitu behar dituzun widget-ak edo aplikazioetarako zuzeneko sarbideak, edo, nahiago baduzu, ezaba itzazu.



Pantaila nagusia handitzea

Pantaila nagusia telefonoaren pantaila baino zabalagoa da, eta horrek leku asko ematen du elementu gehiago sartzeko. Pantaila nagusia handituta ikusteko, hatza eskuinera ala ezkerrera lerratu besterik ez duzu, edo pantailaren beheko ertzetan agertzen diren puntuak ukitu.

Horma-papera hautatzea

1. Sakatu **hasierako tekla**, hasierako pantailara itzultzeko.
2. Ukitu **menu-tekla**, eta hautatu Fondo de pantalla.
3. Ukitu **Galería**, **Fondos de pantalla animados** edo **Fondos de pantalla**, eta hautatu pantailaren hondoan jarri nahi duzun irudia edo animazioa. Beharrezkoa izan liteke Galería aukerako irudiak moztea.
4. Ukitu **Guardar** edo **Establecer fondo de pantalla**.



Nola gehitu elementuak pantaila nagusiarri


1. Sakatu **hasierako tekla**, hasierako pantailara itzultzeko.
2. Joan zaitetz eskuinera edo ezkerrera pantailan libre dagoen eremu bat bilatzeko.
3. Ukitu **menu-tekla**, eta hautatu **Añadir**.

Hasierako pantailako eremu huts bat segundo batzuek ukituta, **Añadir a pantalla principal** menura sartzeko aukera izango duzu.

4. Hautatu kategoria bat zuzeneko sarbideen, widget-en edo karpeten artean.
5. Hautatu pantaila nagusiari gehitu nahi diozun elementua.

Pantaila nagusitik elementuak kentzea




























1. Sakatu **hasierako tekla**, hasierako pantailara itzultzeko.
2. Luze sakatu kendu nahi duzun elementua, pantailan  ikonoa agertu arte.
3. Arrastatu elementua  arte, eta kendu hatza elementua gorri bihurtzen denean.










Egoera- eta jakinarazpen-ikonoak

Telefonoak zer gertatzen ari den zehatz-mehatz jakiteko aukera ematen dizu ikono errazen bidez. Hau esan nahi dute ikono horiek.

	GPRSa deskonektatuta		Ez dago seinalerik
	GPRSa konektatuta		Seinalearen intentsitatea
	GPRSa erabiltzen		Telefonoaren bozgorailua desaktibatuta
	EDGEa deskonektatuta		Telefonoaren mikrofonoa desaktibatuta
	EDGE konektatuta		SIM txartela ez dago sartuta.
	EDGE erabiltzen		GPSa aktibatuta
	3G deskonektatuta		Ahots-mezu berria / Telefono-dei bat grabatzen ari da
	3G konektatuta		MicroSD txartela atera egin da
	3G erabiltzen		MikroSD txartela prestatzen
	HSDPA deskonektatuta		WiFi sarera konektatuta dago
	HSDPA konektatuta		Alarma zehaztuta

	HSDPA erabiltzen		Kabledun entzungailua eta mikrofonoa
	USB konektatuta		Bluetooth-a aktibatuta
	Bateria deskargatuta		Bozgorailua konektatuta
	Bateria oso baxu		Arazoa SMS/MMS jasotzeko
	Bateria baxua		Berehalako mezu berria
	Bateria partzialki deskargatua		Hurrengo ekitaldia
	Bateria beteta		Abestia erreproduzitzen
	Bateria kargatzen		Datuak deskargatzen
	Sinkronizatzen		Edukia zuzen deskargatu eta instalatu da
	Bibrazio modua		Datuak bidaltzen
	Hegaldi modua		USB modema aktibatuta
	Mezu berria		WiFi eremua aktibatuta
 	SMS/MMS berria		WiFi sare berri bat detektatu da

	Gmail-eko mezu berria		Hutsegitea edo ohartarazpena
	Dei galdua		Jakinarazpen gehiago (ez dira erakusten)
	Deia martxan		Desvío de llamada
	Deian zain		

Jakinarazpenen panelaren erabilera




Lerratu egoera-barra pantailaren goiko aldetik beherantz jakinarazpenen panela irekitzeko. Panel horretan egutegiko ekitaldiak, mezu berriak eta uneko doikuntzak, adibidez, deien desbideratzea edo deiaren egoera. Hala, gainera, mezu berriak, oharrak eta abar ireki ahal izango dituzu.

AHOLKUA: jakinarazpenen panela ireki dezakezu hasierako pantailan **menu-tekla > Notificaciones** ukituta ere.

Aplikazioen eta doikuntzen aurrebista

Programen aurrebista


Telefonoak funtzio ugari ditu. Ukitu  hauek ikusteko. Kontuan izan litekeena dela zure telefonoan dituzunen berdin-berdinak ez izatea.

Aplikazioak	Funtzioa
Alarma	Alarmak konfiguratzeko.
Nabigatzailea	Interneten nabigatzea
Kalkulagailua	Oinarizko kalkuluak egitea.
Egutegia	Hitzorduak eta ekitaldiak programatzea.
Deiak	Egindako, jasotako eta galdutako dei guztiak ikustea.
Bideokamera	Bideoak grabatzea
Kamera	Argazki harrigarriak ateratzea.
Kontaktuak	Lagunen eta lankideen kontakturako xehetasunak gordetzea.
Markatzailea	Zenbaki bat markatzea.
Deskargak	Sartu deskargatu dituzun fitxategietara.
Posta elektronikoa	Mezu elektronikoak bidaltzea eta jasotzea.
Artxiboak	MicroSD txarteleko fitxategiak administratzea.
FM irratia	Irrati-kateak bilatzea, entzutea eta gordetzea.
Galeria	Multimedia-fitxategiak kudeatzea.
Gmail	Zure Gmail kontura sartzea eta Gmail-eko mezu elektronikoak zure telefono mugikorrean kontsultatzea.

Aplikazioak	Funtzioa
Bilaketa Googlen	Informazioa linean edo telefonoan bilatzea.
Latitude	Zure lagunen kokapenak ikustea eta zurea partekatzea Google Maps-en Google Latitude-ren bidez.
Maps	Zure uneko kokapena jakitea, trafikoari buruzko informazioa denbora errealean jakitea eta helburura iristeko jarraibide zehatzak jasotzea.
Market	Milaka aplikazio praktikotara eta joko dibertigarritara zuzenean joatea.
Mezuak	Mensajes pantaila irekitzea; hortik SMS eta MMS mezuak bidali eta jaso ditzakezu.
Musika	Audio-fitxategiak aztertzea eta entzutea.
Nabigazioa	Zuzen orientatu ahal izango duzu Google Maps Navigation-ekin.
Albisteak eta eguraldia	Eguraldiaren iragarpena eta interesatzen zaizkizun azken albisteak kontsultatzea
Ohar-bloka	Testu-oharrak sortzea.
Lekuak	Jatetxeak, kutxazain automatikoak eta zugandik hurbil dagoen beste edozein negozio edo interesgune bilatzea.
Doikuntzak	Telefonoaren doikuntzak konfiguratzea.
SIM zerbitzuak	Pantailan agertuko da, soilik zure SIM txartelak funtzio hori eskaintzen badu. Jarri harremanetan zure zerbitzu- hormitzailearekin informazio gehiago jaso nahi baduzu.

Aplikazioak	Funtzioa
Soinu-grabagailua	Audio-klipak sortzeko.
Kronometroa	Zerbait egiteko zenbat denbora behar duzun jakiteko.
Google Talk	Google Talk erabiltzea.
Zeregin-kudeatzailea	Telefonoan exekututzen ari diren programa guztiak kudeatzea.
Bideoak	Bideo-fitxategiak bilatzea eta erreproduzitzea.
Ahots bidezko bilaketa	Zure ahotsa erabiltzea, bilaketak egiteko, gailua kontrolatzeko eta komunikatzeko.
YouTube	YouTube-ko bideoak ikusteko eta zureak kargatzeko.

Doikuntzak egiaztatzea

Telefonoaren doikuntzak ikusteko edo aldatzeko, ukitu **Hasierako tekla** >  > **Ajustes**.

Edo, bestela, hasierako pantailan ukitu **menu-tekla** > **Ajustes**.


Haririk gabeko konexioak eta sareak	Haririk gabeko konexioak konfiguratzeko eta administratzeko —adibidez, WiFi, Bluetooth®-a, sare mugikorrak, datu-konexio mugikorren erabilera partekatua eta sare pribatu birtualak—. Halaber, hemendik aukeratu dezakezu hegal-di modua .
-------------------------------------	---

Deiaren ezarpenak	Hauek konfiguratzea: markatze finkoko zenbakiak, ahots-postontzia, markatze azkarra, deien murrizketa, deien desbideratzea, deiak zain, deia egin duena identifikatzea eta Internet bidez egindako deien doikuntza.
Soinua	Soinuaren doikuntzak konfiguratzea (tonuak edo jakinarazpenak, adibidez).
Pantaila	Pantailaren doikuntzak konfiguratzea, adibidez, distira.
Kokalekua eta segurtasuna	Pantailaren edo SIM txartelaren blokeoa konfiguratzea edo telefonoaren kredentzialen biltegitratzea kudeatzea. Halaber, kokalekuak zehazteko erabili nahi dituzun iturriak hauta ditzakezu Mi ubicación ataletik.
Aplikazioak	Zure aplikazioak kudeatzea eta berriak instalatzea.
Kontuak eta sinkronizazioa	Zure kontuak administratzea eta sinkronizazio-doikuntzak konfiguratzea.
Pribatutasuna	Pribatutasun-doikuntzak konfiguratzea; esaterako, segurtasun-kopiak eta leheneratzea, bai eta datu pertsonalen doikuntzak ere.

Biltegitratzea	Kanpoko txartelean edo telefono barruko biltegian eskura dagoen memoria egiaztatzea.
Hizkuntza eta teklatura	Sistema eragilearen hizkuntza eta herrialdea ezartzea, bai eta testua idazteko aukerak ere.
Ahots-sarrera eta irteera	Ahotsaren ezagutza eta testutik ahotserako aukerak konfiguratzeko.
Irisgarritasuna	Irisgarritasun-aukerak hautatzea, haiei lotutako aplikazioak instalatu ondoren.
Data eta ordua	Data, ordua, ordu-eremua eta dataren eta orduaren formatua konfiguratzeko.
Telefonoari buruz	Telefonoaren egoera, bateria-kontsumoa eta lege-informazioa ikustea. Halaber, sistemaren eguneratzeak kontsulta ditzakezu.

Erabilitako azken aplikazioak berriro irekitzea

1. Luze sakatu **Hasierako tekla**, edozein pantailatan. Telefonoan, erabilitako azken aplikazioen ikonoak agertuko dira.







2. Ukitu ireki nahi duzun aplikazioa.


Telefono-deiak

Deiak nola egin


Telefonoarekin deiak egiteko modu bat baino gehiago dago, eta guztiak oso errazak dira.


Deiak nola egin teklatutik

1. Sakatu **hasierako tekla** >  > **Marcador** edo , hasierako pantailan.
2. Idatzi telefono-zenbakia, pantailako teklatuaren bidez. Ukitu  okerreko digituak ezabatzeko.
3. Ukitu .

AHOLKUA: nazioarteko deiak egiteko, luze sakatu  “+” ikurra idazteko.



Deiak nola egin kontaktuetatik

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Contactos**.
2. Lerratu hatza pantailan kontaktu-zerrendan mugitzeko, eta ukitu deitu nahi duzun kontaktuaren izena.

Kontaktu bat bilatzeko, ukitu  kontaktuen zerrendako beheko aldean.



3. Ukitu .

Deiak nola egin deien historiatik

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Llamadas**.
2. Ukitu deitu nahi duzun zenbakiaren ondoko  ikonoa.

Deiak nola egin testu-mezu batetik

Testu-mezu batek deitu nahi duzun telefono-zenbaki bat badu, deia egin dezakezu mezua bistaratua duzun bitartean.


1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Mensajes**.
2. Ukitu hizketaldia, eta, gero, zuk behar duzun telefono-zenbakia daukan mezua.
3. Ukitu zenbakia.
4. Ukitu .

Markatze azkarra nola erabili

Luze sakatu teklatuko 1etik 9ra arteko tekla bat, markatze azkarraren arabera dagokion telefono-zenbakiari deitzeko.

1 tekla ahots-postontzirako markatze azkarrerako gordeta dago.


Markatze azkarreko tekla bat esleitzea:

1. Ukitu **menu-tekla > Ajustes > Ajustes de llamada > Marcación rápida**, hasierako pantailan.
2. Ukitu markatze azkarreko tekla.
3. Sartu telefono-zenbaki bat edo ukitu , kontaktuen zerrendako bat hautatzeko.
4. Ukitu **Aceptar**.

Deiak nola jaso

Deiari nola erantzun

Arrastatu  eskuinerantz, dei bati erantzuteko.




Nola ez onartu deia


Arrastatu  ezkerrerantz deia ez onartzeko.

Nola isilarazi deia

Dei batean, mikrofonoa desaktiba dezakezu; hala, zure solaskideak ez zaitu entzungo, baina zuk hura entzuten jarraituko duzu.


Ukitu **Silenciar** mikrofonoa desaktibatzeko. Isiltasunaren ikonoa  agertuko da pantailan. Mikrofonoa berriro aktibatzeko, ukitu berriz **Silenciar**.

Nola utzi dei bat zain

Martxan dagoen dei bat zain uzteko, ukitu **menu-tekla > Retener**. Pantailan  ikonoa bistaratuko da.

AHOLKUA: dei batekin ari zarela sartu den beste dei bat onartzen baduzu, lehen deia zain geratuko da automatikoki. Dei batetik bestera aldatzeko, **menu-tekla > Alternar** sakatu behar duzu.

Bozgorailua nola aktibatu eta desaktibatu

Dei batean, ukitu **Altavoz** bozgorailua aktibatzeko.  ikonoa agertuko da egoera-barran. Ukitu **Altavoz** berriro, bozgorailua desaktibatzeko.

Deia nola bukatu

Ukitu  deia amaitzeko.

Deiaren doikuntzak nola konfiguratu


Hasierako pantailan, ireki deien doikuntza-menua. Horretarako, hautatu **menu-tekla > Ajustes > Ajustes de llamadas**.

Marcación fija	Mugatu zenbaki-talde jakin batera irteerako deiak. Horretarako, SIM txartelaren PIN 2 kodea jakin behar duzu.	
Servicio de buzón de voz	Hautatu ahots-postontzien zerbitzuen hornitzaile bat.	
Configuración de buzón de voz	Zehaztu ahots-postontziaren zenbakia.	
Marcación rápida	Konfiguratu tekla eta markatze azkarreko zenbakiak.	
Ajustes de restricción de llamadas	Debekatu dei-mota jakin batzuk.	
Desvío de llamada	Desbideratu sarrerako deiak beste zenbaki batera. Desbideratzea noiz egin nahi duzun ere zehaztu dezakezu: Desviar siempre, Desviar cuando la línea esté ocupada, Desviar cuando la llamada no se responda edo Desviar cuando no se pueda establecer la llamada.	
Configuración adicional	ID de emisor de llamada	Hautatu deitzen ari zaren pertsonen zure zenbakia ikustea nahi duzun.
	Llamada en espera	Ikusi sarrerako deiak zu beste dei bati erantzuten ari zarenean.
Cuentas	Konfiguratu zure kontuak Internet bidezko deiak egiteko (SIP).	

Realización de llamadas por Internet	Hautatu noiz erabili nahi duzun Internet bidezko deien funtzioa.
--------------------------------------	--

Kontaktuak

Telefonoari kontaktuak gehi diezazkiokezu, eta Googleko kontuko kontaktuekin edo sinkronizazioarekin bateragarriak diren bestelako kontuekin sinkroniza ditzakezu.

Kontaktuak ikusteko, sakatu **hasierako tekla** >  > **Contactos**. Handik, goiko aldeko fitxak uki ditzakezu, azkar sartzeko teklatura, dei-erregistrora, gogoko kontaktuetara edo kontaktu-taldeetara.

Kontaktuak nola inportatu eta esportatu

SIM txarteleko edo microSD txarteleko kontaktuak inporta edo esporta ditzakezu. Hori bereziki erabilgarria izango zaizu gailu batetik bestera kontaktuak bideratu behar badituzu.

SIM txarteleko kontaktuak nola inportatu edo kontaktuak txartelera nola esportatu

1. Ukitu **menu-tekla** > **Importar/exportar**, **Contactos** pantailan.
2. Hautatu kontaktuak inportatu edo esportatu nahi dituzun. Zure telefonoak automatikoki erakutsiko ditu kontaktuak.

3. Ukitu inportatu edo esportatu nahi dituzun kontaktuak. Edo, bestela, ukitu **menu-tekla > Seleccionar todo**.
4. Ukitu **Aceptar**.

MicroSD txarteleko kontaktuak nola inportatu edo kontaktuak txartelera nola esportatu


1. Ukitu **menu-tekla > Importar/exportar, Contactos** pantailan.
2. Hautatu kontaktuak inportatu edo esportatu nahi dituzun.
 - Kontaktuak esportatzeko, telefonoak vCard fitxategiaren izena eskatuko dizu. Ukitu **Aceptar** microSD txartelean fitxategia sortzeko.
 - Kontaktuak inportatzeko, vCard fitxategiak microSD txartelean gordeta eduki behar dituzu. vCard fitxategi bat baino gehiago badago, hautatu haietako bat, eta ukitu **Aceptar**.

Nola partekatu kontaktuei buruzko informazioa

1. Ukitu **menu-tekla > Importar/exportar > Compartir contactos visibles**, Contactos pantailan. Telefonoak kontaktuen informazio guztia esportatuko du Contactos pantailatik aldi baterako vCard fitxategi batera.


2. Hautatu nola bidali nahi duzun vCard fitxategia. Bluetooth bidez bidal dezakezu beste gailu batera, edo, bestela, erantsitako fitxategi gisa, mezu elektronikoko bidez.

Kontaktuak nola sortu

1. Ukitu  edo **menu-tekla > Contacto nuevo**, Contactos pantailan.
2. Ukitu **Tipo contacto** kontaktua non gorde hautatzeko.
3. Idatzi kontaktuaren izena, telefono-zenbakiak eta gainerako informazioa.
4. Ukitu **Listo** kontaktua gordetzeko.

Kontaktu bat nola gehitu Favoritos atalera

1. Contactos pantailan, luze sakatu **Favoritos** atalean sartu nahi duzun kontaktua.
2. Ukitu **Agregar a favoritos** bistaratzen den menuan.



AHOLKUA: bestela, kontaktu bat uki dezakezu, eta, gero,  kontaktuaren izenaren alboan, Favoritos atalera gehitzeko.


Kontaktuak nola bilatu

1. Ukitu , Contactos pantailaren behealdean.

2. Idatzi bilatu nahi duzun kontaktuaren izena.
Zerrenda batean agertuko dira bilaketarekin bat egiten duten kontaktu-izenak.

Talde berri bat nola sortu

1. Ukitu **Grupos** fitxa, Contactos pantailan.
2. Ukitu  ikonoa; pantailaren beheko aldean dago.
3. Idatzi taldearen izena, eta ukitu **Listo**.
4. Ukitu talde berria, eta, gero, , kideak gehitzeko.
5. Aktibatu gehitu nahi dituzun kontaktuen alboko laukitxoak.
Gero, ukitu **Aceptar**.

Taldekideei mezu bat bidaltzeko, ukitu  (taldearen alboan dago), eta hautatu mezua jasoko duten hartzaileak taldekideen zerrendatik.


Testua idaztea

Testuak edo zenbakiak behar dituen eremu bat agertzen bada, automatikoki bistaratuko da teklatu bat pantailan. Luze sakatu testua idazteko koadroa, eta hautatu **Método de entrada** bistaritzen den menuan, sarrera-metodoa aldatzeko.

Android-en teklatua

Android-en teklatuak mahaigaineko ordenagailu baten teklatuaren antzeko diseinua du. Biratu telefonoa alde batera, eta teklatua bertikalean egotetik horizontalean egotera aldatuko da.

Teklatua horizontalean erabiltzeko, sakatu **Orientar pantalla automáticamente, Ajustes > Pantalla** atalean. (Horizontalean dagoen QWERTY teklatua ez da bateragarria aplikazio guztiekin).



- Ukitu alfabeto-teklak letrak idazteko. Luze sakatu teklak letra azentudunak edo haiei lotutako zenbakiak idazteko. Adibidez, È sakatzeko, luze sakatu , eta eskuragarri dauden letra azentudunak eta 3 zenbakia agertuko dira. Gero, lerratu behatza È hautatzeko.
- Ukitu  letra larriz edo xehez idazteko. Tekla hori aldatu egiten da, letra larriz edo xehez idazten ari zaren adierazteko:  letra xeherako,  letra larrirako, eta , funtzio hori blokeatu bada maiuskulaz idazteko aukeran.
- Ukitu  idatzitako testua ezabatzeko.
- Ukitu  zenbakiak eta sinboloak hautatzeko. Gero,  uki dezakezu gehiago bilatzeko. Bestalde, sarri erabiltzen diren ikurrak teklatuaren goiko aldean bistaratzen dira. Zoaz eskuinera edo ezkerrera behar duzuna bilatzeko, eta ukitu, idazteko.
- Ukitu  aurpegi irribarretsu bat sartzeko; beste aurpegieraren bat hautatzeko, luze sakatu tekla hori, eta mugitu batetik bestera.
- Ukitu  testua sartzeko metodoa aldatzeko edo Android-en teklatu bat konfiguratzeko.
- Ukitu  Google-ren sarean ahotsa sartzeko sistema erabiltzeko.

Testua idazteko XT9 modua

Testua idazteko XT9 moduarekin, testua azkarrago idatz daiteke. Izan ere, tekla bat sakatzeko mugimenduaren ordez, ibilbide-keinu bat egiten da: hatza letra batetik bestera mugitzen da, jaso gabe, hitzaren amaierara iritsi arte.


XT9k hiru teklatu-diseinu ditu, aukeran: teklatua, teklatu murriztua eta telefono-teklatua.

- Teklatua




Hitz bat osatzeko, eraman hatza letra batetik bestera, jaso gabe, hitzaren amaierara iritsi arte.


Ibilbidearen funtzioa eskuragarri dago teklatu murriztuaren eta telefono-teklatuaren diseinuetan ere.



- Teklatu murriztua




- Telefono-teklatura



Tresna-barra nola erabili



Oharrak:

-  ikonoa eskuragarri egoten da hizkuntza bat baino gehiago aktibatuta badaude. Sarrerako hizkuntza gehiago hautatzeko, sakatu **menu-tekla > Ajustes > Idioma y teclado > Entrada de texto XT9 > Idiomas y opciones**, hasierako pantailan.

XT9 testua idazteko modua erabiltzeko gomendioak:

- Ez egin kasurik letra bikoitzei; XT9 testua idazteko moduak automatikoki antzemango ditu.
- Jaso hatza hitza amaitutakoan. Zuriune bat gehituko da, automatikoki, hurrengo hitza idazten hasten zarenean.

Testua ukipenez sartzeko konfigurazioa nola hautatu

Testua ukipenez sartzeko doikuntzak aldatzeko, ukitu **menu-tekla > Ajustes > Idioma y teclado** hasierako pantailan.

Configuración del teclado atalean, Android tekaturako eta XT9rako aukerak hauta ditzakezu.

Mezularitza


SMSak (testu-mezuak) eta MMSak (multimedia-mezularitzako zerbitzua) **hasierako tekla** >  > **Mensajes** barruan daude.

Mezuen ontzia

Sarrerako ontzi bat eta irteerako beste bat erabili beharrean, telefonoak ontzi bakar batean antolatzen ditu bidaltzen eta jasotzen dituen mezu guztiak. Zenbaki batekin trukaturako mezuak multzokatu egiten dira, mezu-kate batean, Mensajes pantailan. Kate bat ukituta, pertsona batekin izan duzun hizketaldia ikus dezakezu.

Mezu-kateak ordena kronologikoan ordenatzen dira: mezurik berriena goian agertzen da.

Mezuak nola bidali

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Mensajes**.
2. Ukitu **Mensaje nuevo**.
3. Idatzi hartzailearen zenbakia edo izena. Idatzi ahala, bat datozen kontaktuak agertuko dira. Ukitu proposaturako kontaktu bat hartzaile gisa gehitzeko.

4. Ukitu **Escribir el texto aquí**, eta idatzi zure mezua.
- Ukitu **menu-tekla** testu azkar bat, sinadura bat, aurpegiera bat edo kontaktu bat gehitzeko.
 - SMS bat bidaltzen ari bazara, ukitu **menu-tekla** gaia gehitzeko edo irudiak, bideoak, audioa edo diapositiba-aurkezpenak eransteko.
 - 5. Ukitu **Enviar**, mezua idazteko.

OHARRA: testu-mezu bati fitxategi bat eranstea, automatikoki MMS bihurtuko da mezua. Era berean, MMS mezua bati atxikitako fitxategi guztiak eta gaia ezabatzen badituzu, testu-mezu bihurtuko da automatikoki.

Mezuen konfigurazioa nola aldatu

Telefonoko mezuen doikuntzak aurrez konfiguratuta daude, funtzio hori berehala erabili ahal izan dezazun. Aldatzeko, ukitu **menu-tekla > Ajustes, Mensajes** pantailan.

Biltegitratze-doikuntzak:

- **Eliminar mensajes antiguos:** mezua zaharrak ezabatzeko, biltegitratze-muga gaintitzen denean.

- **Límite de mensajes de texto:** mezu-kate berean baimendutako gehienezko testu-mezuak finkatzeko.
- **Límite de mensajes multimedia:** mezu-kate berean baimendutako gehienezko multimedia-mezuak finkatzeko.

Testu-mezuen konfigurazioa (SMS):

- **Informes de entrega:** bidaltzen dituzun testu-mezuen entrega-egoerari buruzko txostena eskatzeko.
- **Administrar mensajes de SIM:** SIM txartelean gordetako mezuak kudeatzeko.
- **Validez del SMS:** irteerako testu-mezuen balio-muga ezartzeko.
- **Prioridad del SMS:** irteerako mezuen lehentasuna ezartzeko.
- **Centro de servicios:** zerbitzu-zentroko zenbakia ikusteko eta hori editatzeko.

Multimedia-mezuen konfigurazioa (MMS):

- **Informes de entrega:** bidaltzen dituzun MMSen entrega-egoerari buruzko txostena eskatzeko.
- **Informes de leídos:** bidalitako MMSa irakurri izanaren txostena eskatzeko.
- **Recuperar automáticamente:** MMS mezuak automatikoki berreskuratzen.

- **Rec. auto. itiner.:** desplazamendu-moduan MMS mezuak automatikoki berreskuratzeke.
- **Validez del MMS:** irteerako multimedia-mezen balio-muga ezartzeko.
- **Modo de creación de MMS:** MMSak sortzeko murrizketak hautatzeko. Modu mugatuan sortutako MMS mezu batek aukera gehiago du beste gailu batean zuzen bistartzeko modu askean sortutako mezuek baino.

Jakinarazpenen konfigurazioa:


- **Notificaciones:** jakinarazpenak egoera-barran bistaratuko dira.
- **Seleccionar tono:** jasotzen dituzun mezuetarako tonu jakin bat aukeratzeko.
- **Vibración:** telefonoak bibratu egiten du mezu berri bat jaso denean.

Sinaduraren doikuntzak:

- **Editar firma:** sinadura editatzeko, irteera-mezu guztietan automatikoki gehitu dadin.
- **Añadir firma:** irteerako mezu guztiei sinadura gehitzeko.

OHARRA: ukitu **menu-tekla > Restaurar ajustes predeterminados** mezen doikuntza guztiak aldatu, eta jatorrizko balioak ezartzeko.

Posta elektronikoa

Ukitu **hasierako tekla** >  > **Email**. Posta elektronikoko kontu bat konfiguratu eta mezu elektronikoak bidali eta jaso ditzakezu.

OHARRA: erabiltzen duzun posta elektronikoko zerbitzuak bateragarria izan behar du POPekin, IMAPekin edo Microsoft Exchange-ko protokoloekin.

Posta elektronikoko kontu bat nola sortu

1. **Email** lehen aldiz irekitzen duzunean, idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza. Gero, hautatu **Siguiente**.

OHARRA: posta elektronikoko zerbitzu-hornitzaile batzuk ordainpeko kontuetarako POP sarbidea soilik eskaintzen dute, eta, ondorioz, baliteke saioa hasi ezin izatea. Ohar hau ikusten baduzu, sakatu **Aceptar**.

2. Hautatu kontu-mota, eta ukitu **Siguiente**.
3. Editatu sarrerako zerbitzariaren eta irteerako zerbitzariaren doikuntzak. Gero, ukitu **Siguiente** edo **Siguiente [Comprobar]**. Sakatu **Siguiente [Comprobar]**, eta telefonoa Internetera konektatu eta doikuntzak aztertuko ditu, hurrengo urratsarekin jarraitu aurretik.

Jarri harremanetan mugikorreko zerbitzuen hornitzailearekin eta posta elektronikoko zerbitzuen hornitzailearekin laguntza gehiago jasotzeko.

OHARRA: telefonoak posta elektronikoko zerbitzuen milaka hornitzaileen bezero-doikuntzak ditu. Erabiltzen duzun posta elektronikoko zerbitzua hornitzaile horiena bada, telefonoak automatikoki konfiguratuko ditu sarrera- eta irteera-doikuntzak zure helbide elektronikoa eta pasahitza sartu ondoren.

4. Zehaztu zer maiztasunekin begiratu nahi duzun posta elektronikoa, deskargako aukerak, kontuaren izena eta bestelako doikuntzak. Sakatu **Listo** amaitzen duzunean.

Posta elektronikoko sarrerako ontzia agertuko da telefonoan, eta mezuak deskargatzen hasiko da.

AHOLKUA: posta elektronikoko kontu gehiago eransteko, ireki Email eta sartu Bandeja de entrada pantailan. Gero, sakatu **Menú > Más > Cuentas > menu-tekla > Añadir cuenta**.

Mezu elektronikoak nola jaso

Sakatu **menu-tekla > Actualizar** mezu elektroniko berriak deskargatzeko. Mezu elektroniko berriak deskargatzeko, hautatu **Cargar más mensajes** mezu elektronikoen zerrendaren beheko aldean.

Mezu elektronikoak nola sortu eta bidali

Posta elektronikoko kontu bat sortu ondoren, mezu elektronikoak sortu eta bidaltzeko aukera izango duzu.

1. Ukitu **menu-tekla > Redactar Bandeja de entrada** pantailan.
2. Ukitu **Para** eremua, hala behar izanez gero, eta idatzi hartzailearen helbide elektronikoa.

Helbidea sartzean, telefonoan bat datozen kontaktuak agertuko dira. Bereizi hartzaileak koma baten bidez.

AHOLKUA: halaber, **menu-tekla > Añadir Cc/Cco** ukitu dezakezu hartzaileak gehitzeko.

3. Idatzi gaia, eta, ondoren, idatzi mezu elektronikoa. Behar izanez gero, mezu elektronikoaren lehentasuna.

Ukitu **menu-tekla > Añadir archivo adjunto** mezu elektronikoari fitxategiak gehitzeko.

4. Ukitu **Enviar**.

Mezu elektronikoa bati nola erantzun edo mezua nola birbidali

1. Ireki ezazu erantzun edo berriro bidali nahi duzun mezu elektronikoa Bandeja de entrada pantailan.
2. Ukitu **Responder** edo **menu-tekla > Desviar**, mezu elektronikoa bati erantzuteko edo hori berriro bidaltzeko.
Halaber, **Responder a todos** ukitu dezakezu, mezu elektronikoa baten hartzaile guztiei erantzuteko.
3. Idatzi mezu elektronikoa edukia eta hartzaileak.
4. Ukitu **Enviar**.

Kontu bat nola ezabatu

1. Ireki Email aplikazioa. Kontu bakarra badago, ukitu **menu-tekla > Más > Cuentas Cuentas** zerrenda eskuratzeko.
2. Luze sakatu ezabatu nahi duzun kontua, eta hautatu **Suprimir cuenta** goitibeherako menuan.
3. Hautatu **Aceptar** berresteko. Kontu horretako mezu elektronikoa guztiak ezabatuko dira.


Posta elektronikoaren ezarpenak

Cuentas pantailan, ukitu konfiguratu nahi duzun kontua, eta, ondoren, ukitu **menu-tekla > Ajustes de cuenta**. Posta elektronikoko kontuaren doikuntzetara sartuko zara. **Menu-tekla > Más > Ajustes del sistema** uki dezakezu biltegitratze-doikuntzak, trukerako doikuntzak eta abar konfiguratzeko.

Interneteko konexioa

Telefonoaren sareko funtzio bikainei esker, Internetera edo sare korporatibora erraz sar zaitezke.

Konexio lehenetsiko konfigurazioa erabil dezakezu zure sare mugikorren bidez (GPRS/EDGE/3G) edo WiFi bidez Internetera konektatzeko.

GPRS/EDGE/3G konexioa eskuz aktiba eta desaktiba daiteke. Hautatu  > **Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Redes móviles** hasierako pantailan, eta aktibatu edo desaktibatu **Datos activados** laukia.

GPRS/EDGE/3G konexio berri bat nola gehitu

GPRS/EDGE/3G bidez konektatzeko, zure zerbitzu-hornitzailearen datu-plan bat kontratatu behar duzu. Horrez gain, GPRS/3G/EDGE doikuntzak ez badaude telefonoan aurretik konfiguratuta, zure zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan jarri behar zara behar duzun informazioa eskuratzeko.


1. Ukitu hasierako tekla >  > **Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Redes móviles > Sarbide-puntuen izenak.**

2. Ukitu **menu-tekla > APN nuevo**.
3. Ukitu elementu guztiak hornitzaileak eman dizun informazioa sartzeko.
4. Ukitu **menu-tekla > Guardar**, amaitzeko.


AHOLKUA: APNren doikuntza lehenetsiak berrezarri nahi badituzu, ukitu **menu-tekla > Restablecer valores predeterminados**.

WiFi konexioa nola aktibatu

WiFiak haririk gabeko Interneterako sarbidea eskaintzen du 100 metro arteko distantzian.

1. Ukitu **hasierako tekla >  > Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes**.
2. Hautatu **WiFi** laukitxo, konexioa aktibatzeko.


WiFi sare batekin nola konektatu

1. Ukitu **hasierako tekla >  > Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Ajustes de Wi-Fi**.

Telefonoak detektatu dituen WiFi sarbide-puntuak agertuko dira, izenekin eta segurtasun-doikuntzekin batera.

2. Ukitu sarbide-puntu bat, horretara konektatzeko.
Segurtasun-funtzioak ezarri badira, pasahitz bat sartu beharko duzu.

WiFi sarearen egoera nola egiaztatu

Egoera-barrako  ikonoaren bidez egiaztatu dezakezu WiFi sarearen egoera.

Bestela, ukitu telefonoa konektatuta dagoen sarbide-puntua **Configuración WiFi** pantailan. Ondoren, bistaratzen den leihoan egiaztatu dezakezu sarearen egoera.

Telefonoa modem gisa nola erabili

Ordenagailuan Internetera sar zaitezke telefonoaren bidez, modem gisa erabilia. Kontuan izan funtzio hori erabiltzen baduzu telefono-operadoreak datu-transferentziaren gastuak kobra diezazkizukeela. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan operadorearekin.

Telefonoa modem gisa nola aktibatu

AHOLKUA:

- Egiaztatu USB biltegitratzea desaktibatuta dagoela, modem-funtzioa aktibatu aurretik. USB biltegitratzea aktibatuta badago dagoeneko, lerratu beherantz egoera-barra, eta ukitu **Desactivar el almacenamiento USB > Desactivar el almacenamiento USB**.

- PCa Internetera sartzen da telefonoaren sare mugikorraren bidez. Horregatik, GPRS/EDGE/3G konexioa zuzen konfiguratu behar duzu, telefonoa modem gisa erabiltzen saiatu aurretik.
- 1. Telefonoa PCra lehen aldiz konektatzean emandako USB kablearen bidez, kontrolagailua instalatzeko eskatzen dizun leiho bat bistaratuko da.
- 2. Egin klik bikoitza leihoan agertzen den fitxategi exekutagarrian (.exe), eta jarraitu argibideei kontrolagailuaren instalazioa osatzeko.
OHARRA: edozein arrazoiengatik leihorik agertzen ez bada, CD-ROMeko kontrolagailu berria zuk ireki beharko duzu PCan, eta fitxategi exekutagarria bilatu, hori exekutatzeko.
- 3. Ukitu hasierako **tekla > menu-tekla > Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Módem USB y Mi zona Wi-Fi**, eta, ondoren, hautatu Módem USB laukitxo. Sare-konexio berri bat sortuko da PCan.
- 4. Joan PCko **Panel de control > Red** atalera, sare-konexio berria aktibatzeko.

Une horretan abiaraz dezakezu Interneteko nabigatzailea PCan, eta nabigatzen has zaitezke.

Modem-funtzioa nola desaktibatu

Ukitu hasierako **tekla > menu-tekla > Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Módem USB y Mi zona Wi-Fi**, eta, ondoren, kendu marka Módem USB laukitxoari.

Halaber, USB kablea zuzenean deskonekta dezakezu.

Telefonoa WiFi sarbide gisa nola erabili

Telefonoa WLAN bideratzaile eramangarri gisa erabil dezakezu eta PC/gailu baterako edo gehiagorako konexioa eman. Funtzio horretarako, sare mugikor bateko datu-konexioa behar da, eta horrek datu-transferentziagatik karguak sor ditzake.

AHOLKUA:

- PCa Internetera sartzen da telefonoaren sare mugikorraren bidez. Horregatik, GPRS/EDGE/3G konexioa zuzen konfiguratu behar duzu, telefonoa WiFi sarbide-puntu gisa erabiltzen saiatu aurretik.
- WiFi sarbide-puntu eramangarriaren funtzioa aktibatzean, telefonoaren aplikazioetatik ezin da Internetera sartu WiFi bidez.

WiFi sarbide-puntua nola aktibatu


1. Ukitu hasierako **tekla > menu-tekla > Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Módem USB y Mi zona Wi-Fi**, eta, ondoren, hautatu Módem USB laukitxoa.
2. Ukitu **Configuración de zona Wi-Fi > Configurar zona Wi-Fi**.
3. Aldatu sarbide-puntuaren izena eta horren segurtasun-konfigurazioa, beharrezkoa bada.
Lehenetsitako sarbide-puntua puntu ireki gisa konfiguratuko da. **Abrir** ukitu eta **WPA2 PSK** hauta dezakezu, pasahitz bat ezartzeko. Pasahitzak zortzi karaktere izan behar ditu gutxienez.
4. Ukitu **Guardar**. Orain, sarbide-puntua beste gailu batzuetan ikusi ahal izango duzu, eta horretara konektatu.

WiFi sarbide-puntua nola desaktibatu



Ukitu hasierako **tekla > menu-tekla > Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Módem USB y Mi zona Wi-Fi**, eta, ondoren, kendu marka **Mi zona Wi-Fi** laukitxoari.

Interneteko nabigazioa

Telefonoa erabil dezakezu Internetera konektatzeko GPRS, EDGE, 3G edo WiFi konexio baten bidez.

Ukitu **hasierako tekla** >  > **Navegador**.

Web-orri bat irekitzeko modu bat baino gehiago dago:

- Ukitu helbide-barra, joan nahi duzun web-orriaren helbidea sartzeko. Ondoren, ukitu **Ir**.
- Ukitu  helbide-barraren ondoan, edo, bestela, ukitu **menu-tekla** > **Favoritos**. Hautatu ireki nahi duzun gogokoa.
- Ukitu  helbide-barraren ondoan, edo, bestela, ukitu **menu-tekla** > **Favoritos**. Hautatu **Más visitados** fitxako edo **Historial** fitxako elementu bat.


Nabigazio-aukerak

Sakatu **menu-tekla** aukera hauetara sartzeko web-orrietan nabigatzen ari zarenean:

- **Ireki beste leiho bat** Interneten nabigatzeko.
- **Irten** nabigatzailearen aplikaziotik.
- Sartu **gogokoetara**, webgune bisitatuenak eta nabigazio-historia ikusteko.
- Aldatu **nabigazio-leiho**a.


- **Eguneratu** uneko web-orria edo **eten kargatzen** ari den orria.
- Ukitu **Más** hurrengo orrira joateko, orri bat gogokoetara gehitzeko, testua bilatu eta hautatzeko, orri baten URLa partekatzeko, orri bateko informazioa egiaztatzeko, deskarga-historia ikusteko edo nabigatzailearen doikuntzak konfiguratzeko.
- Ukitu web-orri bateko URLrako esteka URL hori irekitzeko, gogokoetara gehitzeko, gordetzeko, partekatzeko edo kopiatzeko.

Markagailuak nola erabili

Web-orri bat gogoko gisa markatzeko, ireki ezazu eta ukitu  edo **menu-tekla > Favoritos**. Gero, ukitu **Añadir** ala **Añadir favorito**. Idatzi gogokorako izen bat, eta ukitu **Aceptar**.


AHOLKUA: menu-tekla > **Vista de lista/Vista de miniaturas** sakatu dezakezu, telefonoaren pantailan gogokoen bistaratzea aldatzeko.

Markagailu bat nola editatu

1. Ireki leiho berri bat nabigatzailean.
2. Ukitu  edo **menu-tekla > Marcadores**.
3. Hautatu editatu nahi duzun elementua eta luze sakatu testu-
guru-mezua agertu arte.

4. Hautatu **Editar marcador**.
5. Editatu izena edo kokapena, eta, ondoren, ukitu **Aceptar** gordetzeko.

Markagailu bat nola ezabatu


1. Ireki leiho berri bat nabigatzailean.
2. Ukitu  edo **menu-tekla > Marcadores**.
3. Hautatu ezabatu nahi duzun elementua eta luze sakatu testuinguru-mezua agertu arte.
4. Hautatu **Eliminar marcador**, eta, ukitu **Aceptar**, berresteko.


Nabigatzailearen doikuntzak nola aldatu

Ukitu **menu-tekla > Más > Ajustes** nabigatzaileko leiho batean leiho horren konfigurazioa aldatzeko.

Bluetooth-a

Irismen laburreko haririk gabeko komunikazio-teknologia da Bluetooth®-a. Bluetooth teknologia duten telefonoek edo bestelako gailuek haririk gabe truka dezakete informazioa, 10 metro inguruko distantzian. Bluetooth gailuek elkarri lotuta egon behar dute komunikazioa lortzeko.

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes**, eta ukitu **Bluetooth** aukeraren ondoan dagoen laukitxo, Bluetooth-a aktibatzeko.

Bluetooth-a aktibatuta dagoenean,  ikonoa agertuko da egoera-barran.

2. Ukitu **Ajustes de Bluetooth > Buscar dispositivos**.

Eskuragarri dauden Bluetooth gailu guztiak agertuko dira telefonoan.

3. Ukitu telefonoarekin sinkronizatu nahi duzun gailua, beharrezkoa bada sartu PINa, eta ukitu **Aceptar**.


PIN bat behar baduzu, PIN bera sartu behar duzu beste gailuan. Begiratu beste Bluetooth gailuaren dokumentazioa sinkronizazio-moduari eta PINari buruzko informazioa eskuratzeko.


Hautatu **Visible** laukia beste gailua zure telefonoarekin sinkronizatzen saiatzen bada.

Ukitu **Nombre del dispositivo** beste Bluetooth gailuak zure telefonoa Bluetooth bidez bilatzen dutenean agertzen den izena aldatzeko.


Nola atera multimedia-funtzioei ahalik eta etekin handiena



Kamerarekin argazkiak nola atera

Telefonoak 5 megapixe leko kamera du. Irekitzeko, ukitu **hasierako tekla** >  > **Cámara**.

Ukitu  argazki bat ezabatzeko. Argazkia ikusteko, pantailaren eskuineko ertzean agertzen den argazkia ukitu besterik ez duzu. Edo, bestela, hautatu **menu-tekla** > **Galería**, argazki guztiak ikusteko.

Kameraren doikuntzak nola konfiguratu



Cámara pantailan, ukitu  hauek konfiguratzeko: fokatzemodua, esposizioa, irudiaren tamaina edo kalitatea, kolorearen efektua, ISO, banden kontrako aukera, asetasuna, kontrastea, argitasuna eta kameraren doikuntza lehenetsien berrezarpena.

Ukitu  edo  argazkien kokapen geografikoa gorde nahi duzun ala ez hautatzeko.




Ukitu  zuriaren balantzea doitzeko.

Ukitu  edo  flasha aktibatzen edo desaktibatzen.


Ukitu 1x irudia gerturatzeko edo urrutiratzeko.

AHOLKUA: kamera eta bideokamera moduen artean azkar aldatzeko, erabili  aldaketa-ikonoa. Erabili  barra distira doitzeko.


Bideokamerarekin bideoak nola grabatu

Bideokamera irekitzeko, ukitu **hasierako tekla**  > **Videocámara**. Ondoren, hautatu  grabatzen hasteko eta  grabatzen amaitzeko. Hautatu pantailaren eskuinaldeko ertzean agertzen den irudia, grabatu berri duzun bideoa ikusteko, edo **ukitu menu-tekla** > **Galería**, bideo guztiak ikusteko.

Bideoaren doikuntzak nola konfiguratu

Videocámara pantailan, ukitu  hauek doitzeko: kolorearen efektua, bideoaren kalitatea, bideo/audio kodetzailea, bideoaren iraupena eta bideokameraren doikuntza lehenetsien berrezarpena.



Ukitu  zurien balantzearen doikuntza aldatzeko.



Ukitu **Alto/Bajo/MMS/YouTube**  bideoa grabatzeko modu lehenetsi bat hautatzeko edo zure modua pertsonalizatzeko.



OHARRA: **Alto, Bajo, MMS edo YouTube** modu lehenetsietan ezin dira aldatu bideoaren kalitate-doikuntzak, bideo-kodetzailea, audio-kodetzailea eta bideoaren iraupena.

FM irratia nola entzun


Radio FM aplikazioaren bidez, irradi-kateak bilatu, entzun eta gorde ditzakezu telefonoan. Kontuan izan emisioaren kalitatea eremu horretan irratia duen estalduraren arabera dela. Telefonoarekin batera emandako kabledun entzungailuek antena gisa jokatzen dute; beraz, konektatu egin behar dituzu irratia erabiltzean. Irratia entzuten ari zarela dei bat jasotzen baduzu, irratia itzali egingo da.


Irratia sintonizatzeko, konektatu entzungailua telefonora. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Radio FM**.  ikonoa agertuko da egoera-barran.

Ukitu  edo , eskura dauden FM kateak bilatzeko.

Irrati-seinalea jasotzeko modua doitu nahi baduzu, ukitu **menu-tekla** > **Ajustar**. Ukitu  /  frekuentzia +/-0,1 MHz aldatzeko.


Kanal bat ondo jasotzen duzunean, mantendu agertzen den frekuentzia pantailan laukitxo gorri bat agertu arte, eta, gero, arrastatu frekuentzia hori laukitxora, gordetzeko, irudi hauetan agertzen den moduan.



- Sakatu **bolumen-teklak** bolumena doitzeko.
- Ukitu **menu-tekla** > **Desconexión**, FM irratia ren desconexio-tenporizadorea ezartzeko.
- Irratia itzaltzeko, ukitu .

Musika nola erreproduzitu

Música atalean, telefonoko memoria-txarteleko audio digitaleko fitxategiak erreproduzitu ditzakezu.

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Música, Música** pantaila irekitzeko.
2. Hautatu **Artistas/Álbumes/Canciones/Listas de reproducción**, erreproduzitu nahi dituzun abestiak bilatzeko.
3. Ukitu zerrendako elementu bat, erreproduzitzeko.
4. Doitu bolumena **bolumen-teklekin**.



Erreprodukzio-zerrendak nola sortu

Erreprodukzio-zerrendek musika-fitxategiak antolatzen laguntzen dute:

1. Hautatu erreprodukzio-zerrenda berri batera gehitu nahi duzun musika-fitxategia.
2. Luze sakatu fitxategia testuinguru-menua agertu arte.
3. Ukitu **Añadir a lista**.
4. Ukitu **Nueva**.
5. Idatzi erreprodukzio-zerrendaren izena, eta, ondoren, ukitu **Guardar**.

Erreprodukzio-zerrendak nola kudeatu

1. Musikaren pantailan, ukitu **Listas de reproducción** zerrenda guztiak ikusteko.
2. Luze sakatu erreproduzitu edo editatu nahi duzun erreprodukzio-zerrenda, testuinguru-menu bat agertzen den arte.
3. Ukitu **Reproducir, Eliminar** edo **Renombrar**.

Erreprodukzio-zerrenda bati abesti bat gehitzea.


1. Ireki **Música**, eta bilatu nahi duzun abestia hemen: **Artistas, Álbumes, Canciones** edo **Listas de reproducción**
2. Luze sakatu zerrendari gehitu nahi diozun abestia, testuinguru-menua agertzen den arte.
3. Hautatu **Añadir a lista de reproducción**.

4. Hautatu erreprodukzio-zerrenda bat.

Abesti bat telefonoaren tonu gisa nola ezarri

1. Bilatu musika hemen: **Artistas, Álbumes, Canciones** edo **Listas de reproducción**.
2. Luze sakatu zerrendari gehitu nahi diozun abestia, testuinguru-menua agertzen den arte.
3. Hautatu **Utilizar como tono**.

Bideoak nola erreproduzitu

Bideo-fitxategi bat erreproduzitzeko, ukitu **hasierako tekla** >  > **Videos**. Memoria-txartelean gordetako bideo-fitxategiak dituen Vídeos pantaila irekiko da. Ukitu bideo-fitxategi bat erreproduzitzen hasteko.



Galeria nola ireki



Galerian argazkiak ikusi eta bideoak erreproduzitu ditzakezu. Halaber, irudiekin oinarritzko edizio-operazioak egin ditzakezu; adibidez, hondoko irudi gisa edo kontaktuen ikono gisa ezarri edo lagunekin partekatu.



Oroitzapen gogoangarriak nola sortu

Grabadora de sonidos aplikazioaren bidez, ahots-oharrak grabatu ditzakezu. MicroSD txartel bat behar duzu grabagailua erabiltzeko.

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Grabadora de sonidos**.
2. Ukitu  grabatzen hasteko.

3. Ukitu  grabazioa geldiarazteko.
4. Ukitu  ahots-grabazioa erreproduzitzeko.
5. Ukitu **Aceptar**, ahots-grabazioa gordetzeko, edo **Descartar** grabazioa ezabatzeko.

AHOLKUA: zure grabazioak bilatzeko, hautatu **hasiera-tekla**  **>**
Música > Listas de reproducción > Mis grabaciones.

Google[®] aplikazioak nola erabili


Google-ko zure kontura sartzen bazara, Gmail. Egutegia eta kontaktuak sinkroniza ditzakezu, informazio bera izateko telefonoan eta Interneten. Konturik ez badaukazu, erraz sor dezakezu kontu bat.

1. Ukitu Google-ko kontu bat behar duen Google-ko aplikazio bat, esaterako, **Market**.
2. Irakurri jarraibideak, eta hautatu **Siguiente**.
3. Google kontu bat badaukazu, ukitu **Acceder**. Idatzi erabiltzaile-izena eta pasahitza. Gero, sakatu **Acceder**. (Google konturik ez badaukazu, sakatu **Crear**).
4. Konfiguratu segurtasun-kopiaren eta berrezarpenaren aukera, eta, gero, ukitu **Siguiente > Finalizar configuración**.


Gmail

Web bidezko posta elektronikoko zerbitzua da Gmail, eta zure Google kontura sartzean konfiguratzen da. Sinkronizazio-konfigurazioaren arabera, baliteke zure telefonoko Gmail kontua automatikoki sinkronizatzea Interneteko zure Gmail kontuarekin.

Gmail-eko mezu bat sortzeko eta bidaltzeko:

1. Gmail irekitzeko, ukitu **hasierako tekla**  > **Gmail**.
2. Sakatu **menu-tekla** >**Redactar**.
3. Idatzi harremanetan jarri nahi duzun pertsonaren helbide elektronikoa, **“Para”** eremuan. Mezu elektronikoa pertsona bati baino gehiagori bidali nahi badiozu, bereizi helbide elektronikoak koma batekin. Nahi beste hartzaile gehitu ditzakezu.
4. Sartu mezu elektronikoaren gaia, eta, gero, idatzi mezua.
5. Ukitu **menu-tekla** > **Enviar**.


Google™ egutegia nola erabili

Sakatu **hasierako tekla** >  > **Calendario**, Google Calendar denbora kudeatzeko Googleren aplikazioa erabiltzeko. Egutegia erabil dezakezu hitzorduak finkatzeko, bilerak eta bestelako ekitaldiak barne. Hitzorduak pantailan agertuko dira, programatutako datan. Horrez gain, zure Google kontuko hitzorduak sinkroniza ditzakezu. Hala, zure agenda linean kudea dezakezu zure PCan.

Google Talk nola erabili

Berehalako mezularitzako programa bat da Google Talk, eta aukera ematen dizu Google Talk duten beste pertsona batzuekin komunikatzeko.

Google Talk nola ireki

Ukitu **hasierako tekla** >  > **Google Talk**.


Beste lagun bat nola gehitu

Google kontu bat duten pertsonak soilik gehi ditzakezu.

1. Amigos zerrendan, sakatu **menu-tekla** > **Añadir amigo**.
2. Idatzi gehitu nahi duzun lagunaren Google-ko kontua.

Zure lagunak Googleren gonbidapen bat jasoko du. Sakatu **menu-tekla** > **Más** > **Invitaciones**, zain dauden gonbidapenak ikusteko.

Lineako egoera nola aldatu



1. Ukitu Talk-eko egoera-barra (Amigos zerrendaren gainean dago).
2. Ukitu  egoera aldatzeko, eta, gero, idatzi egoera-mezua testu-koadroan.

Txat bat nola abiarazi

1. Ukitu lagun bat Amigos zerrendan.
2. Lagunarekin txateatzeko, idatzi testua mezuaren koadroan.
3. Ukitu **Enviar**.

Lekuak

Google Places-ek aukera ematen dizu zugandik hurbil dauden negozio eta leku interesgarriei buruzko informazioa bilatzeko.

1. Ukitu hasierako **tekla** >  > **Ajustes** > **Ubicación y seguridad**, eta markatu **Utilizar satélites GPS** edo **Utilizar redes inalámbricas** laukitxoak.
2. Ukitu hasierako **tekla** >  > **Places**. Itxaron zure kokapena aurkitu arte. Zure kokapena aurkitzean, pantailaren behealdean agertuko da.
3. Hautatu negozio-kategoria bat, eta zure inguruan dauden mota horretako negozioei buruzko informazioa agertuko da.

Buscar lugares bilaketa-laukitxoak ere erabil dezakezu (goialdean dago) nahi dituzun negozioak bilatzeko.


OHARRA: ukitu **Añadir** negozio-kategoria berriak gehitzeko.

4. Ukitu interesatzen zaizun emaitza, eta, gero, kontsultatu lekuari buruzko xehetasunak eta iruzkinak. Leku hori Google Maps-en ikus dezakezu, hara nola iritsi jakin, edo horretara deitu.

Latitude

Google-ren Latitude zerbitzua tresna sozial bat da, eta hautatutako lagunekin zure kokapen-informazioa partekatzeko balio du.

Ukitu **hasiera-tekla** >  > **Latitude** zerbitzua aktibatzen.

Maps aplikazioa martxan jartzen duzun bakoitzean, zure kokapena zehaztuko du GPS bidez edo telefonoaren sarearen bidez, eta egoera Latitude-n eguneratuko da. **Menu-tekla** > **Latitude** uki dezakezu Maps-en, edo, bestela, **hasierako tekla** >  > **Latitude**, zure egoera eta zuk hautatutako lagunena ikusteko.

Latitude-n, ukitu **menu-tekla** lagunaren egoera eguneratzeko, Maps-en ikusteko, lagun berriak gehitzeko edo Latitude-ko doikuntzak aldatzeko.

Latitude zerbitzua desaktibatzen, ukitu **Cerrar sesión de Latitude** Latitude-ren doikuntzetan.

Telefonoaren doikuntzak nola antolatu

Ordua eta data nola doitu

1. Ukitu **hasierako tekla > menu-tekla > Ajustes > Fecha y hora.**
2. Desaktibatu **Automático** laukitxoa zuk zeuk zehaztu nahi badituzu data eta ordua.
3. Konfiguratu data, ordua, ordu-eremua eta dataren eta orduaren formatua.

Pantailaren doikuntzak nola aldatu

Hasierako tekla > menu-tekla > Ajustes > Pantalla ukitzen baduzu, pantailaren konfigurazioa nahi duzun bezala doitu dezakezu.

- **Brillo:** pantailaren distira doitu dezakezu.
- **Pantalla giratoria:** orientatu pantaila telefonoaren orientazioaren arabera.
- **Animación:** aukeratu leihoaren animazioa.
- **Tiempo espera pantalla:** ezarri pantaila automatikoki itzali dadin igaro behar duen denbora.


Soinu-doikuntzak

Hasierako tekla > menu-tekla > **Ajustes** > **Sonido** ukituta, soinuaren doikuntzak konfiguratu ditzakezu; adibidez, telefonoaren tonuak eta alertak.

- **Modo silencio:** markatu laukitxoa soinua isiltzeko, multimedia-fitxategien eta alarmen kasuan izan ezik.
- **Activar para silenciar el tono del teléfono:** funtzio hau aktibatzean, sarrerako deien tonua isildu dezakezu telefonoari buelta emateko.
- **Vibrar:** hautatu bibrazioa.
- **Volumen:** ukitu tekla hau dei-tonuen, multimedia-fitxategien, alarmen eta jakinarazpenen bolumena doitzeko.
- **Tono del teléfono:** hautatu sarrerako deien tonu lehenetsia.
- **Tono de notificación:** hautatu jakinarazpenetarako deien tonu lehenetsia.
- **Tonos táctiles sonoros:** markatu laukitxoa, eta telefonoak soinua egingo du markatzeko teklatura ukitzean.
- **Selección sonora:** markatu laukitxoa, eta telefonoak soinu bat egingo du hautapen bat egiteko pantaila ukitzean.


- **Bloqueo de la pantalla:** markatu laukitxoa, eta telefonoak soinu bat egingo du pantaila blokeatzean eta desblokeatzean.
- **Respuesta táctil:** markatu laukitxoa, eta telefonoak bibratu egingo du tekla programagarriak sakatzean edo erabiltzaile-interfazearekin era jakin batean jardutean.

Modu isilera azkar aldatzeko, **sakatu bolumen-tekla**, edo, pantaila blokeatuta badago, arrastatu  ezkerrera.




Hizkuntzaren doikuntzak

Bi pauso erraz emanda alda dezakezu telefonoaren sistemaren hizkuntza.

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Ajustes** > **Idioma y teclado** > **Seleccionar idioma**.
2. Hautatu hizkuntza bat zerrendan.

Sare mugikorren zerbitzuak

Ukitu **hasierako tekla** >  > **Ajustes** > **Conexiones inalámbricas y redes** > **Redes móviles** datu-zerbitzua aktibatzeko edo desaktibatzeko, mugikortasuneko datu-zerbitzuak baimentzeko edo datuetara sartzeko sarbide-puntuaren izenak jartzeko.

Atzerrian datu-zerbitzuak nola erabili

1. Ukitu **hasierako tekla > menu-tekla > Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Redes móviles.**
2. Aktibatu **Itinerancia de datos** laukitxoa.

GARRANTZITSUA: baliteke datuen mugikortasunak mugikortasun-kostu handiak izatea.

Datu-zerbitzuak nola desaktibatu

1. Ukitu **hasierako tekla > menu-tekla > Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Redes móviles.**
2. Desaktibatu **Datos activados** laukitxoa.

Beti konektatuak dauden datu-zerbitzuak nola aktibatu

1. Ukitu **hasierako tekla > menu-tekla > Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Redes móviles.**
2. Markatu **Activar datos móviles siempre conectados** laukitxoa, aplikazioek datuak automatikoki eguneratzea baimentzeko.

GARRANTZITSUA: aukera hori hautatu ondoren, datu-zirkulazio handiagoa sortuko da aplikazioen datuen eguneraketa automatikoetarako, eta telefonoaren bateria-kontsumoa handitu egingo da.

Sare-moduak nola aldatu

1. Ukitu **hasierako tekla > menu-tekla > Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Redes móviles > Modo de red.**
2. Hautatu hauekiko bat: **Modo automático de GSM/WCDMA, Solo WCDMA edo Solo GSM.**

Sarea nola aldatu

1. Ukitu **hasierako tekla > menu-tekla > Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Redes móviles > Operadores de red.** Telefonoak automatikoki bilatzen ditu erabilgarri dauden sare guztiak.
2. Ukitu sare bat eskuz erregistratzeko, edo, bestela, ukitu **Seleccionar automáticamente.**

Sarbide-puntuen izenak nola konfiguratu

Internetera konektatzeko, sarbide-puntuen izen lehenetsiak (APN) erabil ditzakezu. APN berri bat gehitu nahi baduzu, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin, informazio gehiago eskuratzeko.


1. Ukitu **hasierako tekla > menu-tekla > Ajustes > Conexiones inalámbricas y redes > Redes móviles > Sarbide-puntuen izenak.**
2. Ukitu **menu-tekla > APN nuevo.**
3. Konfiguratu behar diren parametroak. (Kontsultatu nola gehitu GPRS/EDGE/3G konexio bat eskuliburu honetako *Interneteko konexioa* atalean)
4. Ukitu **menu-tekla > Guardar.**

Segurtasunaren konfigurazioa

Ondoren, zure telefonoa eta SIM txartela baimenik gabeko erabileretatik nola babestu azaltzen da.

Pantaila desblokeatzeko ereduarekin babestea telefonoa

Pantaila desblokeatzeko eredia sortzea

1. Ukitu **hasierako tekla >  > Ajustes > Ubicación y seguridad > Configurar bloqueo de pantalla > Patrón.**
2. Irakurri jarraibideak, eta ukitu **Siguiente.**
3. Kontsultatu adibide-eredua, eta, gero, ukitu **Siguiente.**

4. Hatz batekin, egin zure eredua, eta ukitu **Siguiente**.

5. Egin eredua berriz, eta ukitu **Confirmar**.

6. Sakatu **pizteko tekla** pantaila blokeatzeko.

AHOLKUA: desaktibatu **Usar patrón visible** laukitxoa eredua ezkutatu nahi baduzu pantailan sortu bitartean.

Pantaila zure patroiarekin desblokeatzea

1. Sakatu **pizteko tekla** pantaila aktibatzen.

2. Egin pantaila desblokeatzeko eredua.

Oker egiten baduzu, berriro saiatzeko eskatuko dizu gailuak.


Ez duzu gogoratzen pantaila desblokeatzeko eredua?

Bost saiakera egin ditzakezu, gehienez, telefonoa desblokeatzeko. Oraindik ez baduzu gogoratzen pantaila desblokeatzeko eredua, ukitu **¿Olvidaste el patrón?**, eta sartu zure Google kontuko erabiltzaile-izena eta pasahitza, pantailaren blokeo-eredua berriz ezartzeko.


GARRANTZITSUA: zure Google kontura sartu edo telefonotik beste bat sortu behar duzu eredua berriz ezartzeko metodo hori erabili aurretik.

Telefonoa PIN batekin edo pasahitz batekin nola babestu

PINa edo pasahitza sortzea


1. Ukitu hasierako tekla >  > **Ajustes > Ubicación y seguridad > Configurar bloqueo de pantalla.**
2. Ukitu **PIN** edo **Contraseña**.
3. Jar ezazu nahi duzun zenbakizko PINa edo pasahitza, eta sakatu **Continuar**.
4. Idatzi berriro, eta ukitu **Aceptar**, baieztatzeko.

Pantaila zure PINarekin edo pasahitzarekin desblokeatzea

1. Sakatu **pizteko tekla** telefonoa aktibatzeko.
2. Arrastatu  ikonoa eskuinerantz.
3. Sar ezazu konfiguratutako PINa edo pasahitza.
4. Ukitu **Aceptar**.


Pantaila desblokeatzeko aukera nola desaktibatu

Desblokeatzeko eredu bat, PIN bat edo pasahitz bat sortu baduzu, desaktiba dezakezu.

1. Ukitu hasierako tekla >  > **Ajustes > Ubicación y seguridad > Cambio bloqueo de pantalla.**
2. Zehaztu desblokeatzeko eredua, edo idatzi sortu duzun PINa/pasahitza.
3. Ukitu **Ninguno**.


SIM txartela PIN batekin nola babestu

SIM txartel guztiek PINa dute. Hasierako PINa telefonia mugikorreko operadoreak ematen du. Komeni da ahal duzunean SIMa blokeatzea.

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Ajustes > Ubicación y seguridad > Configurar bloqueo de tarjeta SIM.**
2. Markatu ezazu **Bloquear tarjeta SIM** laukitxo.
3. Sar ezazu eman dizuten PIN kodea, eta ukitu **Aceptar.**

SIM txartelaren PIN kodea aldatzea

Jaso duzun PIN kodea alda dezakezu, eta gogoratzeko errazagoa eta besteentzat asmatzeko zailagoa den kode bat jarri.

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Ajustes > Ubicación y seguridad > Configurar bloqueo de tarjeta SIM.**
2. Egiaztatu **Bloquear tarjeta SIM** laukitxo markatu duzula.
3. Ukitu **Cambiar PIN de la tarjeta SIM.**
4. Idatzi PIN kode zaharra, eta ukitu **Aceptar.**
5. Sartu PIN kode berria, eta hautatu **Aceptar.**
6. Sartu berriz PIN kode berria, eta ukitu **Aceptar.**


Blokeatutako SIM txartel bat leheneratzea

Gorde zure pasahitz konfidentzial guztiak leku seguru batean, aurrerago erabiltzeko. SIM txartelaren PINa oker sartuz gero baimendutako aldietan baino gehiagotan, SIM txartela blokeatu egingo da, eta ezin izango da sartu telefonia mugikorreko sarera. Jarri operadorearekin harremanetan PINaren desblokeatze-pasahitza (PUK) eskuratzeko, SIM txartela leheneratzeko.

Egiaztagirien biltegitratzea nola konfiguratu


Funtzio honi esker, ziuurtagiri seguruetara eta beste egiaztigiri batzuetara sar daitezkeen aplikazioak hauta ditzakezu.

Segurtasun-egiaztigiriak aktibatzea

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Ajustes > Ubicación y seguridad.**
2. Ukitu **Establecer contraseña**, eta sortu egiaztigiriak biltegitratzeko pasahitza.
3. Markatu **Credenciales seguras** laukitxoa.

AHOLKUA: ziuurtagiri zifratuak ere instalatu ditzakezu microSD txarteletik, **Instalar desde la tarjeta SD ukituta.**

Segurtasun-ziurtagiriak ezabatzea

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Ajustes** > **Ubicación y seguridad**.
2. Ukitu **Borrar almacenamiento**, ziurtagiriak ezabatzeko.

Gailuaren memoria nola administratu

Ukitu **hasierako tekla** >  > **Ajustes** > **Almacenamiento**.

MicroSD txartelean eta telefonoan hutsik dagoen espazioari buruzko informazioa ikus dezakezu.

- **Expulsar tarjeta SD:** txartela kanporatu dezakezu, modu seguruan ateratzeko telefonoa itzali gabe.
- **Borrar tarjeta SD:** memoria-txarteleko datu guztiak ezabatzeko balio du.

Pribatutasuna: fabrika-konfigurazioa nola berrezarri

Ukitu **hasierako tekla** >  > **Ajustes** > **Privacidad** > **Restablecer datos de fábrica** > **Reiniciar** > **Borrar todo**.

OHARRA: zure informazio pertsonal guztia eta telefonoak deskargatu dituzun aplikazioak ezabatu egingo dira fabrikako datuak leheneratu ondoren.


Aplikazioak nola administratu

Ukitu **hasierako tekla** >  > **Ajustes** > **Aplicaciones**.


- **Administrar aplicaciones:** instalatutako aplikazioak administratzeko edo ezabatzeko.
- **Servicios en ejecución:** martxan zer zerbitzu dauden ikusteko eta geldiarazteko, beharrezkoa bada.
- **Uso de almacenamiento:** aplikazioek zer biltegi-erabiltzen duten ikusteko.
- **Uso de la batería:** bateria-kontsumoa ikusteko.
- **Desarrollo:** aplikazioak garatzeko aukerak ezartzeko.

Markatu **Orígenes desconocidos** laukitxoa Android Market-ekoak ez diren aplikazioak instalatu nahi badituzu. Kontuan izan zure telefonoa eta datu pertsonalak arriskuan jar ditzakezula aplikazio horiek instalatuz gero.

Aplikazioak nola instalatu

Android Market-etik (**hasierako tekla** >  > **Market**) aplikazio bat instalatzeko, hautatu deskargatu nahi duzun elementua, eta ukitu **Instalar**.

Market-en sartzen ez diren aplikazioak ere instala ditzakezu, horretarako baimena eman baduzu. Hautatu duzun aplikazioa instalatu baino lehen, ziurtatu zure gailuarekiko eta prozesagailu-motarekiko bateragarria dela.

1. Kopiatu aplikazioaren fitxategia microSD memoria-txartelean, eta sartu txartela telefonoan.
2. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Archivos**, eta ireki aplikazioaren fitxategia dagoen karpeta.
3. Instalazioa hasteko, ukitu fitxategia.
4. Irakurri aplikazioarekin batera datozen instalazio-jarraibideak, eta jarraitu iezaiezu, prozesua bukatu arte.

Beste doikuntza batzuk nola administratu


Bilaketa-doikuntzak

Bilaketa-doikuntzak eta bilaketa-historia administratzeko, ireki **Búsqueda de Google** aplikazioa, eta ukitu **menu-tekla** > **Ajustes de búsqueda**.

- **Búsqueda de Google:** Googleren bilaketarako konfigurazioa doitzeko.
- **Elementos de búsqueda:** bilaketa doitzeko.

Hautatutako azken bilaketa-iradokizunetarako zuzeneko sarbideak ere ezaba ditzakezu.

Elkarreraginak ahotsarekin

Ahotsa ezagutzeko eta testua ahots bihurtzeko aukerak konfiguratzeko, ukitu **hasierako tekla** >  > **Ajustes** > **Entrada y salida de voz**.


OHARRA: ahots-datuak kargatu behar dira nahitaez, ahots-sintesiaren funtzioa erabiltzeko. Ukitu **Instalar archivos de datos de voz**, **Ajustes de síntesis de voz** aukeran.

Irisgarritasuna

Konfiguratu irisgarritasun-aukerak alderdi horri lotutako aplikazioetarako.

Beste zenbait aplikazio

Alarmak

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Alarma**.
2. Ukitu aurrez zehaztutako alarma, konfiguratzeko. Edo, bestela, alarma berri bat sortzeko, **ukitu menu-tekla** > **Añadir alarma**
3. Aktibatu **Activar alarma** laukitxoa, eta konfiguratu hauek: **Nombre, Hora, Repetir, Aplazamiento, Duración, Vibración, Tono de llamada, Volumen, Volumen en aumento eta Retraso**.

Ohar-bloka

Bloc de notas aplikazioak oharrak sortzeko aukera ematen du. Ukitu **menu-tekla** oharrak gehitzeko edo ezabatzeko, edo, bestela, testua microSD memoria-txarteleko txt fitxategi batera esportatzeko. Luze sakatu ohar bat editatzeko, ezabatzeko, partekatzeko, esportatzeko edo izenburua aldatzeko.


Kalkulagailua

Ukitu **hasierako tekla** >  > **Calculadora**.

AHOLKUA: ukitu **menu-tekla** > **Panel de funciones avanzadas**, kalkulagailu zientifikoa erabiltzeko.

SIM zerbitzuak

Servicios SIM pantailan agertuko da, soilik, SIM txartelak funtzio hori badu. SIM txarteleko zerbitzuak erabiltzeko, lehenik eta behin sartu SIM txartela telefonoan.


Ukitu **hasierako tekla** >  > **Servicios SIM**.

Zeregin-kudeatzailea

Ukitu **hasierako tekla** >  eta hautatu **Gestor de tareas**, aplikazioak ikusteko edo geldiarazteko.

Ukitu zeregin bat **Tareas** fitxan, pantailan sartzeko, ezeztatzeko edo haren xehetasunak ikusteko. Ukitu **Recursos**, sistemaren baliabideen esleipena denbora errealean ikusteko.

Kronometroa

1. Ukitu **hasierako tekla** >  > **Cronómetro**.
2. Ukitu **Iniciar**, kronometroa abian jartzeko; ukitu **Pausar** geldiarazteko, eta ukitu **Reanudar**, jarraitzeko.
3. **Restablecer** hautatuz gero, kronometroa 00.00.Ora itzuliko da.

Zehaztapenak

Neurriak		Gutxi gorabehera: 126 mm x 67 mm x 11,3 mm
Pisua		Gutxi gorabehera, 140 g (bateria eta gutzi)
Bateragarritasuna operadorearekin		GSM/WCDMA
Pantaila nagusiko bereizmena eta dimentsioak		4,3 hazbete 800*480
Atzealdeko kamera	Sentsore-mota	CMOS
	Argazki finkoen bereizmena	5 megapixel eta fokuratze automatikoa
Memoria-txartel erauzgarria		32 GB-ko MicroSD txartelarekin bateragarria
Bateria	Ahalmena	1400 mAh
	Iraupena	200 ordu gutxi gorabehera (sarearen egoeraren arabera)
	Hitz egiteko denbora	240 minutu gutxi gorabehera (sarearen egoeraren arabera)

RoHS araudia betetzearen aitorpena

Ingurumen-inpaktua murrizteko eta bizi garen planetaren ardua handiagoa izateko helburuarekin, dokumentu honen bidez formalki aitortzen da ZTE Skate telefonoak (ZTE CORPORATIONek egindakoa) Europako Batasunaren 2002/95/EB RoHS Direktiba (Substantzia Arriskutsuen Murrizketa) betetzen duela substantzia hauei dagokienez:

1. Beruna (Pb)
2. Merkurioa (Hg)
3. Kadmioa (Cd)
4. Kromo hexabalentea (Cr (VI))
5. Bifenilo polibromatuak (PBB)
6. Polibromodifeniloen eterrak (PBDE)

ZTEk fabrikatzen duen BLADE modeloak, Europako Batasuneko 2002/95/EB Direktibaren betekizunak betetzen ditu.

Gailu zaharra botatzea



1. Produktu batek edukiontzi ezabatu baten irudia badu, horrek esan nahi du Europako Batasunaren 2002/96/EE Direktiban jasotzen dela produktu hori.
2. Produktu elektriko eta elektroniko guztiak bereiz bota behar dira, tokiko agintariek horretarako ezarritako bilketa-puntu eta -zerbitzuetan.
3. Gailu zaharrak behar bezala botaz gero, ingurumenerako eta giza osasunerako ondorio kaltegarriak eragozten lagunduko duzu.

WEEE Direktiban oinarritutako produktu honen birziklatze-eskuliburua eskatzeko, bidali mezu elektroniko bat helbide honetara: weee@zte.com.cn.

ADOSTASUN- DEKLARAZIOA

CE 1588 !

Honen bidez deklaritzen dugu jarraian aipatzen den produktuak

Produktu-mota banda dualeko telefono mugikor digitala
WCDMA/GSM (GPRS)

Modeloaren zenbakia: ZTE SKATE

irradi eta telekomunikazioko ekipu terminalei buruzko direktiba (Europako Erkidegoko 1999/5/EE direktiba) eta bateragarritasun elektromagnetikoari buruzko direktiba (2004/108/EE) **betetzen dituela.**

Probak eta ebaluazioa pasa dituzten laginak bezala fabrikatu diren ale guztiei aplikatzen zaie deklarazio hau.

Produktuaren adostasun-ebaluazioa (irradi eta telekomunikazioko ekipu terminalei buruzko direktibaren baldintzak) American TCB enpresak (erakundearen zenbakia: 1588) egin zuen, estandar hauen arabera:

Segurtasuna	EN 60950-1:2006/A11:2009
Bateragarritasun elektromagnetikoa	EN 301 489-1 V1.8.1; EN 301 489-7 V1.3.1; EN 301 489-17 V2.1.1; EN 301 489-24 V1.5.1; EN 55013:2001+A2:2006; EN 55020:2007;
Irratia	EN 301 511 V9.0.2; EN 301 908-1 V4.2.1; EN 301 908-2 V4.2.1; EN 300 328 V1.7.1;
Osasuna	EN 50360:2001; EN 62209-1:2006; EN 62209-2:2010; EN 50332-1:2000; EN 50332-2:2003

Deklarazio hau fabrikatzailearen erantzukizuna da:

ZTE Corporation

ZTE Plaza, Keji Road South, Hi-Tech, Industrial Park, Nanshan District, Shenzhen, Guangdong, 518057, P.R.China

Enpresaren izenean sinatzen duen pertsona baimendua:

Xu Feng ZTE Corporation-eko Kalitate Saileko zuzendaria

Izena eta enpresan duen postua inprentako letrekin idatzi dira

Shenzhen-en, 2010eko uztailaren 21ean



Lekua eta eguna

Sinadurak balio legala du



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008